KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA
2021eko azaroa / 321. zenbakia
www.oñati.eus

OROIMENEAN

Apirilean zendu zen Juan Carlos Irizar omenduko dute azaroaren 21ean, Musikegunak jardunaldien baitan

2021-2022 ikasturteko **Jabetze Eskolaren egitaraua** aurkeztu du Udalak

- 11 ikastaro eta 6 solasaldi programatu dituzte.
- **Espazio egonkor** bat ere egongo da, amatasunaren gaia lantzeko, eta **gazteei** (16-25 urte) zuzendutako ekintzak ere antolatu dituzte estraineko aldiz

Izaro Elorza, Berdintasun batzordeko burua, eta Oihane Ruiz de Apodaka, teknikaria

2017an hartu zuen bere gain Udalak **Emakumeentzako Jabetze Eskola** kudeatzeko ardura, aurrez *Andraitz* talde feministak egindako lanari jarraipena emanez, eta hasi berri dugun ikasturtean ere apustu horri eutsiko dio udaleko Berdintasun sailak.

Emakumeen topagunerako, eztabaidarako, formaziorako eta saretzeko espazioa eskaini nahi du Jabetze Eskolak. Emakumeen eskubideez jabetu, kezkak eta ondoezak partekatu, autonomia eta konfiantza landu eta emakumeen arteko sareak sortzea da helburua. Errealitatea ikuspegi feministatik aztertu eta berau aldatzeko tresnak (indibidual zein kolektiboak) eskuratzea da Jabetze Eskolaren xedea.

Ildo horretan, azken ikasturteko balorazioa eginda, eta berdintasun arloan ezarritako lan-ildoak eta emakumeek egindako proposamenak aintzat hartuz, programa mamitsua prestatu dute 2021/22 ikasturterako, 11 ikastaro-tailer eta 6 hitzaldi-solasaldirekin. Gainera, amatasunaren inguruko espazio egonkor bat ere egongo da, eta, berritasun moduan, neska gazteei (16-25 urte) bereziki zuzendutako ekintzak ere egongo dira. Udalaren webgunean (*https://www.oñati.eus/udala/zerbitzuak/jabetze-eskola*) dago ikusgai egitarau osoa eta baita izen-emate orria ere. Gogoratu, ikastaro bakoitza hasi aurreko 8 lanegunera arte egongo dela zabalik izen-ematea.

Catalana Occidente
Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak
Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:
Heriotza
Autoak
Bizitza
Istripuak
Ontziak
Osasuna
Etxebizitza
Aurrezkia
Laborantza
Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Azaroan hasiko diren ikastaro-tailerrak

• IRAKURKETA FEMINISTEN ZIKLOA
Irakurketa hautatuak, pentsamoldea zabaltzeko eta esaten dena gehiago pentsatzeko. (Asteazkenetan 18:00-20:00; 12 ordu guztira. Prezioa: 10€)

• ZORU PELBIKOA INDARTZEKO TAILERRA
Ostegunetan (9:30-11:00); 20 ordu.
Prezioa: 20€

• NOKA, EMAKUMEON AHALDUNTZERAKO TRESNA
Emakumeen hika berreskuratzeko aukera, *Ingo Xonau* egitasmoaren baitan. Astelehenetan (18:00-20:00); 20 ordu.
Prezioa: 20€

Azaroan izango diren hitzaldi-solasaldiak

• FABRICANDO MUJERES 2.0 ¿CONSUMIMOS VIOLENCIA?
SETEM Hego Haizea elkartearen eskutik dokumentalaren proiekzioa eta solasaldia. Azaroaren 24an, asteazkena, kultur etxeko zine aretoan, 18:00etan . Elebitan.

• AURTENGO **BERRITASUNAK** •

ESPAZIO EGONKORRA Amatasunak, gorputzak eta literatura: hausnarketa feministarako espazioa

Amatasunen bizipenei buruz hitz egiteko espazio edo gune egonkor bat egongo da ikasturte osoan zehar. Azaroaren 17an hasita, hileko hirugarren asteazkenetan (18:00-20:00) Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18), Paloma Gutiérrezen gidaritzapean.

Amatasunak emakumeen bizitzetan duen eraginari buruz, amatasunak dakartzan emozio eta aldaketei buruz, ama izateko edo ez izateko erabakiari buruz, ehuntzen ditugun loturei buruz... gogoeta egiteko eta partekatzeko gunea izango da. Norberaren gorputzetik abiatuta eta literaturaren laguntzarekin egingo da hausnarketa.

NESKA GAZTEENTZAKO (16-25 URTE) JABETZE ESKOLA

Gazteen eskariari erantzunez, aurten, aurreneko aldiz, beraiei zuzendutako bi ikastaro programatu dituzte Jabetze Eskolaren baitan. Lehenengoa azaroan bertan izango da.

• NESKA GAZTEAK OHOLTZA GAINEAN AHALDUNTZEA

Jendaurrean jarduteko eskarmentua duten emakume erreferenteen eskutik, emakumeek espazio publikoan sentitzen dituzte beldurrak eta oztopoak gainditzea eta neska gazteak gune horretan ahalduntzea izango da ikastaroaren helburua. **La Basu** (azaroak 13), **Maider Arregi Markuleta** (azaroak 20) eta **Iraitz Agirre Aranguren** (azaroak 27) izango dira gonbidatua. Gaztelekuan izango dira saioak, larunbat goizetan (11:00-12:30).

Apirilean, gazteei zuzendutako '**Autodefentsa ziber-feminista**' tailerra egingo da.

Onintza Andres, udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko teknikaria, eta Anik Zubizarreta, zinegotzia

AULKIAK

AZAROAK 19, 20 ETA 27

Oñatiko elkarte, kolektibo eta eragileen arteko topaketa antolatu du Udalak

AULKIAK izenburupean, Oñatiko erakunde, elkarte, kolektibo eta eragile guztiei zuzendutako topaketa antolatu du Udalak, Partaidetza eta Garapen Komunitarioa sailaren bitartez.

AULKIAK elkarlanerako espazio bat izatea nahi dute; herriko beste elkarte eta gizarte-ekimen batzuk ezagutzeko, Oñatiko elkarte- eta gizarte-sarearen egungo egoerari buruz gogoeta egiteko, eta ideiak, proposamenak eta iritziak trukatzeko.

Gauza jakina da Oñati herri oso bizi dela, eta makina bat elkarte, kolektibo eta eragilek dihardutela herrigintzan: arlo sozialean, naturaren zaintzan, kulturan, kirolean, GKE/ONGak, talde feministak, erretiratuak, gazte taldeak, jai batzordeak...

Izugarrizko aberastasuna dago hor, eta oinarri horretatik abiatuta antolatu da AULKIAK topaketa, helburu ezberdinekin: alde batetik, talde horiek guztiek herriari egiten dioten ekarpena balioan jartzea, eta, bestetik, elkarren arteko ezagutzan sakontzea, elkarte bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak partekatzea, eta elkarlanerako bideak esploratzea, Oñatik dituen behar eta erronkei amankomunean eraikitako erantzuna eman ahal izateko.

Deialdiko irudian agertzen diren aulki ezberdinen bidez, herriko elkartegintzan dagoen aniztasuna adierazi nahi da, eta, aldi berean, jasarteko eta berba egiteko gonbita luzatu nahi du. Beraz, animatu eta parte hartu!

'AULKIAK' TOPAKETAK

Azaroaren 19an (17:00-20:30), **20an** (10:00-13:30) eta **27**an (10:00-13:30) egingo da topaketa, Eltzia eraikineko 3. solairuan. Partehartzea errazteko, hiru egunetan burutuko da topaketa, baina elkarte bakoitzak saio batean soilik parte hartuko du. Izen-ematea **azaroaren 15a** baino lehen egin behar da:, **kultur etxean, partaidetza@onati.eus** helbidean edo **www.oñati.eus** webgunean, zein egunetan parte hartuko duten adieraziz .

PREZIORIK ONENAK
ETA GERTUKO ARRETA

TELEFONO FINKOA

+ FIBRA
100Mb

+ 25Gb
MUGIKORRA
DEI MUGAGABEEKIN

+ 3Gb
2. MUGIKORRA
DEI MUGAGABEEKIN

39'90 €/HILEAN
(BEZ barne)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!
Alta ematea eta instalazioa ***DOAN***

EXTRAK:
**Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak*

TV PREMIUM	+ 6 €/HILEAN
2. ETXEBIZITZA FIBRA + FINKOA (Estaldu edozein herritan)	+ 18'90 €/HILEAN

·MUGIKOR GEHIGARRIAK

5Gb DEI MUGAGABEEKIN	+ 3 €/HILEAN
8Gb DEI MUGAGABEEKIN	+ 5 €/HILEAN
25Gb DEI MUGAGABEEKIN	+ 8 €/HILEAN

·ESKAINTZA BEREZIA!

25Gb DEI MUGAGABEEKIN	+ 1 €/HILEAN 2021eko abenduarte. Ondoren + 8 € Promozio honek magalak extra bakarrentzat balio du.

MÁSMÓVIL

LIZKER INFORMATIKA

Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)

Udal zerga eta tasek %2,5eko igoera orokorra izango dute 2022an

▶ Kiroldegia eraberritu ondoren, bertako tasak eguneratu egin ditu
Udalak eta, adibidez, norbanako helduen urteko abonua %20 jaso da

Urriaren 21eko osoko bilkura berezian onartu zuen udalbatzak 2022ko Zerga Ordenantza, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz. Irizpide orokor gisa, udal zerga eta tasei %2,5eko igoera orokorra aplikatzea onartu zen. Udalak esku artean dituen proiektu estrategikoei aurre egiteko, zerga eta tasak eguneratu beharra dagoela adierazi zuen Xabier Igartuak, gobernu taldearen izenean. Hala ere, onartutako igoera, KPIa gaur gaurkoz igo denaren azpitik dagoela gogorarazi zuen.

Bestalde, udal zerga eta tasak izozteko EAJk egindako proposamena kritikatu zuen Igartuak; "Proiektuak proposatu baino, badirudi Oñati izoztea dela EAJ bilatzen ari dena".

KIROLDEGIKO TASAK

Kiroldegiko tasetan %2,5ekoa baino igoera handiagoa aplikatuko da. Hala, 22 urtetik gorakoen abonua, adibidez, ia %20 garestituko da (149€-tik 180€-ra). "Kiroldegia eraberritu ondoren, tasak eguneratzea erabaki dugu, zerbitzua nabarmen hobetu baita. Hala ere, tasa berriak eskuragarriak direla uste dugu, eta, eskualdeko kiroldegiekin alderatuz, helduen abonua %17 garestiagoa da Arrasaten, %32 Bergaran, eta %80 Aretxabaletan" azaldu zuen Igartuak.

Hobariak emateko orduan, norbanakoen egoera kontuan hartu ordez etxebizitza edo unitate familiarren errenta hartuko da kontuan aurrerantzean.

BERRITASUNAK ZERGA ORDENANTZAN

SOZIOEKONOMIA

- **%75eko hobaria EIOZ zergan**

Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuek herriari egiten dioten ekarpena balioan jarriz, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergan (EIOZ) %75eko hobaria aplikatuko zaie.

- **%40ko hobaria jarduera ikuskapenaren tasan**

Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea sustatzeko asmoz, %40ko hobaria aplikatuko da establezimenduen jarduera ikuskapenaren tasan.

LANDA GARAPENA

- **Segregazio tasa**

Lursailen segregazio tasari dagokionez, 200€-tan finkatu da ordaindu beharreko gehienezko kopurua.

- **Larreratze tasa**

Aloabel elkarteak eta Udalak deituriko auzolanetan parte hartzen duten ganaduzaleei %100eko hobaria aplikatuko zaie larreratze tasan, baina 150€ko mugarekin.

GAZTERIA

- **Ludoteka eta udaleku irekietako zaintza**

Ludoteka zerbitzuan urte erdiko tasa ordaintzeko aukera ere egongo da (orain arte urte osokoa izan da). Bestalde, udaleku irekietako zaintza zerbitzua Udalak kudeatu beharko du datorren urtetik aurrera, eta tasak borobiltzea erabaki da.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

- **OHZ eta EIOZ zergak**

Ondasun Higiezinen gaineko zergan (OHZ) eguzki-indarra autokontsumorako aprobetxatzeko puntuak dituen hobariei Geotermia, Aerotermia eta Biomasa sistemak gehitzea erabaki da. Era berean, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan ere (EIOZ) eguzki-indarra autokontsumorako aprobetxatzeko sistemak gaur egun duen %95eko hobariari Geotermia, Aerotermia eta Biomasa gehituko zaizkio.

KIROLDEGIKO TASAK - 2022

• NORBANAKOEN ABONUAK

21 urtetik 22ra atzeratu da nagusien abonua

Egitura	Urteko abonoa
0-2 urte	0 €
3-13 urte	90 €
14-22 urte / ikasleak	126 €
22 urtetik gorakoak	180 €

• FAMILIARRA / ELKARBIZITZA UNITATEAREN ABONUAK

Norbanakoaren tasa oinarri hartuta, %25eko jaitsiera izango dute nagusiek, eta %50ekoa seme-alabek

Egitura	Abonuaren kalkulua	Urteko abonoa	0-2 urte	3-13 urte	14-22 urte
Bikotea	(KIDEEK 18 urte ↑*2)-%25	270 €	- €	- €	- €
Bikotea seme-alabekin	(GURASOEK 18 urte ↑*2)-%25) +Seme-alaba bakoitzari dagokiona %50 beherapenaz	270 €	- €	45 €	63 €
Guraso bakarreko ELKARBIZITZA UNITATEA	(GURASOAK 18 urte ↑)-%15)) + Seme-alaba bakoitzari dagokiona %50 beherapenaz	153 €	- €	45 €	63 €
Gurasoetako bat gehi seme-alaba	GURASOAK 18 urte ↑ + Seme-alaba bakoitzari dagokiona %50 beherapenaz	180 €	- €	45 €	63 €

• HOBARIEN %a eta KUOTAREN %a

Hobariak emateko orduan, norbanakoaren egoera kontuan izan ordez (pentsiodun, banandu, alargun, langabe, langile...), etxebizitza edo unitate familiarren errenta hartuko da kontuan, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata erreferentzia gisa hartuta.

Elkarbizitza Unitatearen kide kopurua	1.- LGSa edota gutxiago	2.- LGS eta LGSaren %150a artean	3.- LGS-aren %150etik eta Bi aldiz LGS	4.- Bi aldiz LGSetik Hiru aldiz LGS
Urteko errentak eurotan	13.300€ edo gutxiago	13.301€-19.950€	19.951€- 26.600€	26.601€-39.990€
Kide bat	% 25eko hobaria.-	0 hobari.-	0 hobari.-	0 hobari.-
2 kide	% 50eko hobaria.-	% 25eko hobaria.-	0 hobari.-	0 hobari.-
3 kide	% 75eko hobaria.-	% 50eko hobaria.-	% 25eko hobaria.-	%15 hobari.-
4 edo gehiago	% 95eko hobaria.-	% 75eko hobaria.-	% 50eko hobaria.-	%25 hobari.-

Zerga eta tasak izoztea proposatu du EAJk

EH Bilduk aurkeztutako Zerga Ordenantzaren aurkako botoa eman zuen EAJk. Jeltzaleek udal zerga eta tasak izoztea proposatu zuten, COVID-19aren ondorioz herritarrek, autonomoek eta enpresek egin duten esfortzua orekatzeko.

Zerga Ordenantzan hainbat hobari aplikatzea ere proposatu zuen EAJk. Hala, tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzeko asmoz, %40ko hobaria aplikatzea proposatu du Jarduera Ekonomikoen zergan, eta %75ekoa jardueren eraikuntza eta birgaitzean.

Landa-eremuari dagokionez, baserrietan bigarren etxebizitza eraikitzen dutenentzako %95eko hobaria proposatu du obren gaineko zergan. Horrez gain, baso-kudeatzaileentzako hobariak proposatu ditu, atmosferaren karbonogabetzean egiten duen lana balioan jarriz.

Jasangarritasunaren arloan, berokuntza instalazioetan plaka fotovoltaikoak edo termikoak eta geotermia, aerotermia edo biomasa erabiltzen dutenentzako hobariak proposatu dituzte, eta motor hibridoa edo elektrikoa duten ibilgailuei aplikatzen zaien hobaria handitzea, %75 eta %95eraino, hurrenez hurren.

Kiroldegiko tasei dagokienez, tasen murrizketa jaso ahal izateko adina 21 urtetik 25era igotzea proposatu dute. Ikusi proposamen guztiak QRan.

GI-2630 errepidea eta Otadui kalearen arteko elkargunean eraikiko dute biribilgune berria, Oñatiko mendebaldeko sarreran

Goribarren biribilgunea eraikitzeko proiektua aurkeztu du diputazioak

Gaur egungo T formako bidegurutzea ordezkatuko du. Oinezkoentzako espaloia eta autobusentzako geltokiak ere egokituko dituzte.

Planoak erakusten duen moduan, oinezkoentzako espaloia ere egokituko da, industrialde-rainoko ibilbide segurua bermatzeko, eta autobusentzako geltokiak ere egokituko dira GI-2630 errepidearen alde banatan

Munazategiko (Garibai auzoa) biribilgunea eraikitzeko lanak aurrera doazen honetan, zuzengune horretan bertan, baina beste muturrean (Goribarren) biribilgune berria eraikitzeko proiektua aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Ondoko planoak erakusten duen moduan, errotonda berria Oñatiko mendebaldeko sarreran egokituko da, GI-2630 errepidea eta Otadui kalearen arteko elkargunean. Biribilguneak 40m.-ko kanpo diametroa izango du, 6m.-ko eraztun-erreia, eta 12,5m.-ko barne erradioa. Gainera, errotondan sartzeko erreiek lerrokadura kurbatua izango dute, ibilgailuen abiadura murritzarazteko.

Biribilgune honekin eta Munazategi parean (ULMA eta Garibai auzoko sarreran) eraikitzen ari denarekin, 700m.-ko zuzengune horretan dauden ezkerreko biraketak ezabatu eta bide-segurtasuna areagotu nahi dira, industrialdeetarako eta herrigunerako sarrera-irteerak hobetuz.

Biribilgunea eraikitzearekin batera, honi itsatsitako espaloi berria (2m.-ko zabalera) ere egokituko da, Otadui kaletik datozen oinezkoei industrialderainoko pasabide segurua bermatzeko. Gainera, Oñatiko Udalaren eskaera aintzat hartuz, autobusentzako bi geltoki ere egokituko dira, bata aipatutako espaloiaren ondoan (ikusi planoa) eta bestea kontrako noranzkoan, errepidearen beste aldean (Eguzkialde eta Lur Gorri enpresen parean).

LANAK DATORREN URTEAN

Biribilgunea eraikitzeko obrak hartu beharko dituen jabetza ez-publikoko lursailen (410 m²-ko azalera, hiru partzela ezberdinetan) berri ere eman du diputazioak.

Goribarko errotonda eraikitzeko proiektuak 499.549 €-ko (BEZ barne) aurrekontua du, eta 2022an zehar obra hastea aurreikusten du diputazioak, jendaurreko informazio aldian egon daitezkeen helegiteak aztertu eta exekuzio proiektua idatzi ostean. Ordurako amaituta egongo dira Munazategiko biribilgunea eraikitzeko lanak. ■

Beasain eta Bergara arteko autobia ordainpekoa, urtarriletik aurrera

▶ Foru Aldundiak *Abiatu* gailua eskatzeko deia luzatu du, deskontuak lortzeko aukera ematen duen bakarra delako

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, 2022ko urtarriletik aurrera ordaindu egin beharko dute Bergara eta Beasain artean A-636 errepidea erabiltzen duten motordun ibilgailu guztiek, motozikletek izan ezik.

Autobiaren erabilera kobratzeko, *free-flow* izeneko sistema adimendua erabiliko du, errepideko puntu ezberdinetan ipiniko dituen arkuen bidez, ibilgailuek gelditu beharrik izan ez dezaten.

Horregatik, erabiltzaileek tele-ordainketarako gailu bat (*Abiatu*, *Via-T*) eskuratu beharko dute, edo, bestela, ibilgailuaren matrikula banku-txartel batekin lotu beharko dute, urtarrila baino lehen.

Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako arduradunek *Abiatu* gailua jartzea gomendatu dute, beherapen progresiboa (ikusi taula) baliatzeko aukera ematen duelako (%25etik %75era) eta, gainera, gastu topea duelako) 33,37€ Gipuzkoako autobideetan, 49,30€ Bizkaiko AP-8an eta Arabako AP-1n).

IBILBIDEA	ABIATURIK GABE	ABIATUREKIN (Deskontu progresiboak, gutxienez 6 joan-etorri hilean)		
		1-8 TRANSITO 25%	9-20 TRANSITO 55%	21 TRANSITOTIK AURRERA 75%
Beasain-Ormaiztegi	**0,38€**	**0,28€**	**0,17€**	**0,09€**
Ormaiztegi-Zumarraga	**0,74€**	**0,55€**	**0,33€**	**0,18€**
Legazpi/Urretxu-Bergara	**1,41€**	**1,06€**	**0,63€**	**0,35**
Legazpi/Urretxu-Antzuola	**0,48€**	**0,36€**	**0,22€**	**0,12€**

Diputazioak triptikoak banatuko ditu Debagoieneko etxe gehienetara, A-636 Beasain-Bergarako erabiltzaileei ezarriko zaien kanon honen inguruko informazioa emateko. Gainera, aurrez aurreko informazioa ere emango du Antzuolan (udaletxean) azaroaren 4an eta 22an, eta abenduaren 13an, eta Bergaran (udaletxean, azaroaren 5, 8 eta 24an, eta abenduaren 14 eta 15ean.

ABIATU gailuaren eskaera edo matrikula banku-txartel bati lotzea bide telematikoz egin daiteke **www.bidegi.eus** webgunean, edo aurrez aurre Aritzetako Bezeroaren Arreta Zerbitzuan.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak
• Administrazioa • Haziendarekin
• Informazioa • Trafikorekin
• Salmenta • Herentziak, eta abar
Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK
• Era guztietako garbiketak
• Jabegoen eta elkarteen administrazioa
• Konponketa orokorrak
GAKO
Garbitasunaren usaina
653 70 45 47
Oñati

Oinezkoentzako ibilbidea Lezesarriraino

Azkoagain eta Urrintxo artean espaloia eraikitzeko proiektua onartu du Udalak

Lezesarri auzoko San Esteban ermita inguruko baserrietara modu seguruan iristea ahalbidetuko duen espaloia egokitzeko proiektua onartu zuen udalbatzak iraileko osoko bilkuran. Gainera, proiektua onura publikokoa dela deklaratzea eta lanak egin ahal izateko hartu beharreko ondasunen zerrendari hasierako onespena ematea erabaki zen aho batez. Beheko planoan azaltzen den moduan, Azkoagaineko bidegurutzean hasi eta Urrintxo pareraino iritsiko da oinezkoentzako ibilbidea, bi zatitan banatuta. Proiektuak 243.708 €-ko (BEZ barne) aurrekontua du eta, ustekaberik ez bada, datorren urte hasieran egingo dira lanak.



Azkoagaineko bidegurutzetik Urrintxoko aparkalekuraino luzatuko da espaloia, Arantzazuko errepidearen gorako erreiari atxikita zati batean, eta beherakoari bestean, planoak azaltzen duen moduan

ANE MERTZERIA
• Josteko zerak
• Lentzeria
• Umeen jantziak
Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.
• Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa
Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

350 metroko espaloia bi zatitan banatuta

Ezkerreko planoak erakusten duen moduan, bi zatitan banatuko da Lezesarri auzoan egokituko den oinezkoentzako bidea.

Lehen zatia, (Urrintxotik galtzada gurutzatu arte) GI-3591 errepidearen eskuineko ertzean egingo da, igotzeko erreiari atxikita (Arantzazurako norabidean). Errepidearen plataforma zabaldu egingo da, oinezkoentzako bidea ezartzeko (2m.-ko zabalera). Horretarako, galtzadaren ardatzari eutsiz, igotzeko erreiaren (eskuineko erreia) zabalera 3.50 metortik 3.00 metrora estutuko da. Eskuineko erreiaren eta oinezkoentzako ibilbidearen artean 0,40 m.-ko zintarria egokituko da, baliza bertikalekin tartekatuta.

Galtzada gurutzatzeko tokian ibilgailuen zirkulazioa lasaitzeko eremua egokituko da; erreiak estutu egingo dira (3 metro) eta erdiko irlatxo bat (1.20 m.) tartekatuko da

Bigarren zatia Arantzazuko errepidearen eskumako aldean (herrigunerako norabidean) egokituko da; San Esteban ermitarako sarbidetik Azkoagaineko bidegurutzeraino 2 m.-ko zabaleradun espaloia egokituko da bertan.

Sestra ingenieritza enpresak idatzi duen proiektuak 243.708 euroko (BEZ barne) aurrekontua du. Proiektuak argiteria publikoa ezartzeko obra zibila ere barne hartzen du, ez ordea argiteria bera. Bestalde, obra burutu ahal izateko, Udalarenak ez diren 178 m^2 lursail (hiru partzela ezberdinetan) desjabetzea arreikusten da.

Ustekaberik ez bada, datorren urtean egingo dira lanak, desjabetzeak egin eta obra lizitatu ostean.

Arrapala berria, irisgarritasuna bermatzeko

Goiko argazkian erakusten duen moduan, kanposantuko gune berriko irisgarritasuna bermatzeko arrapala berria egokitu du Udalak. Orain dela zazpi urte eskailera-igogailua jarri zuen, baina hainbat arazo eta matxura izan ditu eta, azkenik, arrapala finko bat eraikitzea erabaki da. Udal brigadako langileek egin dute arrapalari eusteko obra zibila, eta Caravanas Oñatek egin du arrapala bera, 26.680 eurotan. Hiru argi puntu berri ere ipini dituzte arrapala argitzeko.

Selma Huxley Barkham ikerketa beka deitu du Udalak, 18.000 €-ko dotazioarekin

Udaberrian egin zen deialdia hutsik geratu ostean, ez baitzen proposamenik aurkeztu, *Selma Huxley Barkham* ikerlariaren izena daraman 3. beka deialdia berriro egitea onartu du udalbatzak.

Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egin dioten ekarpena balioan jartzea da beka honen helburua, kontatu gabeko historia argitara eman eta emakumeei zor zaien aitortza egin ahal izateko. Ikerketa bekak 18.000 euroko dotazioa du, eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den ondorengo egunetik aurrera 30 egun balioduneko epea irekiko da proposamenak aurkezteko.

Gazteen kultur jardueretarako dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Udaleko Gaztedia departamentuak urtero ematen dituen dirulaguntza hauek Oñatiko gazteek eta gazte talde edo elkarteek sustatzen dituzten kultur jardueretara zuzentzen dira. Eskatzaileak oñatiarra izan behar du dirulaguntza jaso ahal izateko, eta talde bat denean, kideen erdia, gutxienez, 12 eta 30 urte artekoa izan behar da. Udalak udaberrian egin zuen aurreneko deialdian sei eskaera jaso ziren, eta orduan banatu barik geratu ziren 6.620 € daude bigarren deialdi honetan banatzeko. Informazio gehiago, Gaztelekuan.

ETXiAN Inmobiliaria
Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

carpintería GARIBAI aroztegia
Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Harrera oso ona izaten ari da diruz lagundutako bonuen kanpaina berria

DAGOENEKO 1.700 HERRITARREK ESKURATU DITUZTE BONUAK

Udalak 30.000 euro bideratuko ditu ekimenera, eta 150.000 euroko kontsumoa sustatzea espero da

Udaleko eta Txandako ordezkariak kanpainaren aurkezpenean

Urriaren erdialdean jarri zuen martxan Udalak herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan erabilgarri diren bonuen kanpaina berria eta, bi aste igaro direnean, laguntzaren %85 erabili da, jada.

Gogoratu, guztira 30.000 euro bideratu dituela Udalak kanpaina honetara, eta dagoeneko 1.700 herritarrek eskuratu dituze bonuak, eta horri esker 130.000 euroko erosketak ahalbidetu dira.

Udal ordezkariak pozik agertu dira kanpaina berri honek izan duen harrerarekin; "Oñatiarrek herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alde duten jarreraren adierazgarri da", adierazi du Xabier Igartua Sozioekonomia zinegotziak; "azken batean, bertako establezimenduak dira herriari bizia, argitasuna, konfiantza, gertuko hartu-emana... eskaintzen diotenak".

ABENDUAREN 3RA ARTE

Esan bezala, Udalak kanpaina honetara bideratu duen laguntzaren bi heren erabili dira oraingoz, eta, beraz, oraindik badago bonuak eskuratzeko aukera.

Gogoratu, Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek eskura ditzaketela %20ko deskontudun bonuak, 75 euro arteko mugarekin, kanpainarekin bat egin duten komertzioetan gastatu ahal izateko.

Bonuak eskuratzeko bi bide daude: ***oñati.bonoak.eus*** plataforma digitalaren bidez (saltoki batzuek ez dute aukera hau eskaintzen), edo kanpainara atxiki diren establezimenduetan eskatuta (Interneteko atarian ikus daiteke zerrenda osoa).

Azaroaren 30era arteko epea dago bonuak erosteko (lehenago agortzen ez badira), eta abenduaren 3ra artekoa bonuak establezimenduetan kontsumitzeko. ■

'oñati.bonoak.eus'

Erosteko orduan, nire lehen aukera Oñati

Herriko 50 komertzio, taberna, ostatu eta zerbitzuk egin dute bat bonuen kanpainarekin 'oñati.bonoak.eus' webgunean ikus daiteke zerrenda osoa

https://oñati.bonoak.eus **webgunean edo saltokietan eskura daitezke bonoak**

BEGOÑA ETA ARANTZA MARKULETA

MARKU ARROPA DENDA

“Oñatiko dendatan produktu onak daude eta denetatik aurki daiteke”

19 urte pasa dira Arantza eta Begoña Markuleta ahizpek Marku denda martxan jarri zutenetik, nahiz eta aurretik lokal berean lanean arituak ziren biak. Udalak eskuragarri jarritako bonoei eta herritar askoren kontzientziazioari esker, pandemiaren kolpeari aurre egin diote. Gazteek Oñatin eros dezaten saltoki txikiek sare sozialetan ere egon behar dutela uste dute. Gaur egun Txanda merkatari elkarteko zuzendari batzordeko kide dira.

Lehenik eta behin, nola zaudete? Pandemia hasi eta konfinatu ginenean beldurtu gintuen honi nola buelta eman. Baina laguntza handia izan genuen bonoekin, jendeak oso ondo erantzun zuen... eta hasiera oso ona izan zen, guretzat sorpresa izan zen.

Orain jendeak jartzen dio aurpegia erosten dituen produktuen atzean dagoenari? Bai, batez ere jende helduak. Zoritxarrez gazteek ez horrenbeste. Dirua herrian gelditzea garrantzitsua da. Marku-n erosten baduzu, gero Markukoak ere herriko beste negozio batean erosiko du. Dena kate bat da. Denok elkar ezagutzen dugu, herri bat gara.

Begoña eta Arantza erakusleihoaren aurrean.

“Erakusleihoak asko laguntzen du saltzen, baina erakusleiho birtuala ere landu behar dugu. Biak uztartzea da bidea”

Eta zer esango zenieke Oñatiko gazteei? Pittin bat kontzientziatzeko herrian erostea herriaren onurarako dela, hemen inbertitzen dena herrian geldituko dela. Aldiz, Amazon-en gastatzeak dirua beste leku batzuetara eramaten du eta lanak prekarioak dira. Eta tratu pertsonalizatua daukagula: gazte askok ez dakite arropa bat erosterakoan herriko dendatan edozein konponketa egiten diegula. Hori guztia jakiteko, proba egin beharko lukete.

Zuenera sartzen da gazterik? Gutxi. Orokorrean gure bezeroa jende heldua da, aspalditik ezagutzen duguna.

Baina orain hasi gara Instagramen-eta produktuak argitaratzen, eta igarri dugu jende gazteagoa hurbiltzen hasi dela pittinka-pittinka. Saltoki txikiok Interneten esparrua gehiago landu behar dugu bezero gazteak erakartzeko. Adibidez, erakusleihoak asko laguntzen du saltzen, baina gazteei begira erakusleiho birtuala ere landu behar dugu.

Internet eta sare sozialen prestakuntza jasotzen hasiak zarete... Bai. Udalaren bitartez, Instagram, sare sozialak, Google Business, Whatsapp Business... ezagutu, argazkiak eta bideoak nola egin ikasten aritu gara. Garrantzitsua da.

Zer nolako emaitzak eman dituzte bai Txandak eta bai Udalak herrian erosteko egindako kanpainek? Pittinka pittinka jendea gero eta kontzientziatuago dago. 'Tokiko zale' kanpaina polita izan da: poltsak banatu genituen, zozketa Instagram-en... hor Txandakoak ibili ginen buru-belarri. Eta Udalak bultzatutako 'Erosteko orduan, nire lehen aukera, Oñati' kanpainak, ideia bera indartu du.

Lehen aukera Oñati, zergatik? Jasangarriagoa da, gertukoa. Gainera, herriko dendatan produktu onak, kalitatezkoak daude, gero eta produktu aukera gehiago, gauza gutxi dira hemen aurkitu ezin direnak. Are gehiago, Oñatiko auzo handi gehienetan ere denetatik dago.

Musika Eskolaren etorkizuneko proiektua eta kokalekua definitzeko azterlana abian jarri du Udalak

Hiritik At enpresa kontratatu du hausnarketa estrategikoa egiteko

Udaleko, musika eskolako eta *Hiritik At* enpresako ordezkariak, proiektuaren aurkezpen ekitaldian

Gauza jakina da Jose de Azpiazu musika eskolaren gaur egungo kokalekuak gabezia asko dituela, bai irisgarritasun mailan eta baita instalazioen egoerari dagokionean ere. Beraz, gaiari adarretatik heldu eta arazoari irtenbidea emango dion azterlana abian jartzea erabaki du Udalak, eta *Hiritik At* enpresa kontratatu du (15.000€) musika eskolaren egungo egoera aztertu eta etorkizunera begirako hausnarketa estrategikoa bideratzeko.

Musika eskolaren gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin ondoren, eskolak etorkizunean izan beharko lukeen eskaintza pedagogikoa eta kudeaketa eredua definitzea dira, besteak beste, erronkak, eta horren arabera, eskolarentzako kokaleku egokia erabakitzea. Gaur egun 350 ikasle eta 800 bat matrikula ditu musika eskolak, eta bertako komunitatea osatzen duten ikasle, irakasle eta gurasoen iritzia ere kontuan hartuko da prozesuan zehar.

Urtarrila amaiera edo otsaila hasierarako plan estrategikoa prest egotea espero du Udalak, eta bertan jasoko diren beharren arabera, etorkizuneko musika eskolarentzako kokaleku berriaren inguruko erabakia hartuko dute, ahal dela agintaldi hau amaitzerako (2023).

'EMAKUMEEN ETXEA', BESTE PROIEKTU NAGUSIA

Musika Eskolarenarekin batera, Emakumeen Etxea izango da udal gobernu taldeak agintaldi amaiera bitartean mahai gainean izango duen beste egitasmo nagusia, prentsa ohar bidez jakinarazi duenez.

Emakumeen Etxea bezalako espazio bat beharrezkoa da, udal gobernuaren ustez, berdintasunaren alorrean urratsak ematen jarraitzeko, herri mailan burutu diren prozesu, diagnostiko eta dinamika ezberdinetan agerian geratu den moduan. Beraz, udalak serioski heldu dio erronkari, eta hasita dago leku egokiak bilatzen, proiektuari forma ematen eta aurrerako bidea marrazten. Dena den, espazioaren kudeaketa, antolaketa eta funtzionatzeko era parte hartze prozesu baten bidez zehaztuko direla azaldu du gobernu taldeak.

Kiroldegiko eraberritze lanak amaitu ostean, 2020ko aurrekontuaren likidazioa itxi du Udalak, eta inbertsioetarako 2 milioi pasa dituela azaldu du gobernu taldeak. Eta esku artean izan dituen proiektu nagusiak (kiroldegia, natur eskola eta Araotzeko ostatua) amaituta edo amaitzear dauden honetan, datozen urteetarako proiektu estrategikoak izango direnak zehaztu ditu: musika eskola eta Emakumeen Etxea. Baina horrek ez du esan nahi inbertsio bakarrak izango direnik.

BERBALAGUNA

egitasmoan izena emateko epea zabalik

Aurten ere, aurreko urteetako moduan, BERBALAGUN egitasmoak ateak irekiko ditu gure herrian euskaraz berba egiteko samurtasun gutxi duten herritarrek, konfiantzazko eta lagun arteko giroan euskara praktikatuz, poliki-poliki euskaraz bizitzen has daitezen. Euskara praktikatu nahi dutenei laguntzeko prest baldin bazaude, eman izena udal euskaltegian azaroaren 2tik 12ra, bide hauek erabiliz: euskaltegia@onati.eus / 943782496.

Basoaren diagnostikoa egingo dute Eskola Agenda 2030 progamaren baitan

Agenda 2030-k markatzen dituen garapen iraunkorrerako helburuekin jarraituz, 'Lehorreko ekosistemak' izango da Eskola Agenda 2030 programaren ikasturte honetako aztergaia.

Berdeguneak ezinbestekoak dira udalerrian gure bizi-kalitatea bermatzeko eta biodibertsitatea babesteko. Beraz, parke eta basoetara hurbiltzeko proposamena jasoko dute Oñatiko ikasleek, eremu hauen garrantziaz jabetu eta hobekuntzarako proposamenak luzatzeko.

Herriko hiru ikastetxeek hartuko dute parte Eskola Agenda 2030 egitasmoan, eta ikasturtean zehar egindako lanketaren emaitzak udal ordezkariei aurkeztuko dizkiete 2022ko maiatzean egingo den udalbatzar berezian.

Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi zaituztegu,
Arrasate/ Mondragonen
bertan ere artuko zaitu Zuatzu Klinikako espezialista-taldeak, hogei urtetik gorako esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

ZUATZU
KLINIKA

Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon
943 792 018 . www.clinicazuatzu.com

R.P.S. 71/18. Zuzendari medikoa: Miguel Salaberri Kolegiatu zk. 20/20111

Appa hi!

Oñatiko hika ikasteko aplikazioa aurkeztuko dute aurki

Eskuko telefonora deskargatu eta bost astean hika ikasteko aukera ematen du

Appa hi! aplikazioa aurkeztuko dute aurki. Eskuko telefonoaren bidez Oñatiko hika ikasteko aplikazioa da, eta bost astean hika ikasteko aukera ematen du. Egunero pilula bat: informazioa eta galdera-sorta bat. Marrazkiak eta bideoak, adibideekin. 35 egunean galderei zuzen erantzuten dienak bost astean lortuko du titulua; oker erantzunez gero, berriro saiatzeko aukera dauka.

Badihardugu euskara elkartea (Ingo Xonau! proiektuaren koordinatzailea) eta *Codesyntax* ("Egunean behin" aplikazioaren sortzailea) elkarlanean dabiltza aplikazioa prestatzen. **Hikaldirako** aurkeztuko dute. Gogoratu, 2019an abian jarri zen Ingo xonau! proiektuaren baitan hainbat ekintza egin direla hitanoa biziberritzeko eta zabaltzeko: elkarrizketak, ikus-entzunezkoak, liburuxka, esku-orria, hikalaguna, hika ikastaroak, hika lantzeko proposamenak ikastetxeetan... eta aplikazioa da aurtengo erronketako bat, gaur egun teknologia berriak ezinbestekoak direlako gazteengana iristeko.

Azaroaren 23tik aurrera egongo da **Appa hi!** aplikazioa deskargatzeko aukera

HIKALDIXA

Aurten **Hikaldixa** antolatuko du Oñatiko Udalak. Azaroaren 26tik abenduaren 5a bitartean izango da. Helburua: **hamar egunean hika hitz egitea**, mutilen zein nesken artean. Oñatin mutilen artean nahiko zabalduta dago hitanoa, baina neskei hika egiteko ohitura gainbeheran zegoen puntura arte. Ohitura berreskuratu, eta hika guztion artean egitea da **Hikaldixa**ren erronka. "**Ingo xonau? Ingo xuau!**" txapak aterako dituzte, hitanoaren erabilera bultzatzeko. Txapa jantzi, eta hika jardutea da proposamena, adina kontuan hartu gabe, baina ez dago hika jakin beharrik txapa janzteko: ez dakienak belarria egiteko aukera izango du. Hikaldirako hainbat ekintza prestatuko dituzte: hikapoteoak eta hika bertso-saioa, besteak beste.

Lehen Hezkuntzako ikasleen %72 ari dira Eskola Kirolean

Eskola Kirola elkarteko ordezkariak eta babesle-laguntzaileak

Eskola Kirola programa sendotuz doa urtetik urtera. Hala, hasi berri dugun ikasturtean LH-1 eta LH-6 arteko ia 600 neska-mutikok (Mutilen %82 eta nesken %61) parte hartuko dute bertan. Aste barruko saioez gain, asteburuetan 18 kirol ezberdinetan aritzeko aukera izango dute gaztetxoek, eta kirol egokituko saioak ere antolatu dituzte aniztasun funtzionala duten haur eta gazteei zuzenduta. Eskola Kirolak 125.000 €-ko aurrekontua du; izen-emateen bidez %42,9 lortzen da eta gainerakoa Aldundiak (%21,4), Udalak (%20,9) eta enpresa pribatuek (%14,7) jartzen dute.

'ZURE OSASUNA HOBETU'

Beldurrei aurre egin eta emozio negatiboak kudeatzen ikasteko tailerrak emango ditu Iturrigorri Elkarlan elkarteak, Udalaren babesarekin. Dohainik izango dira.

- **EGUNAK**: azaroaren 11tik abenduaren 16ra (Ostegunetan)
- **ORDUTEGIA**: 18:30 – 20:00
- **IZEN-EMATEA**: maribelpachecos@gmail.com / 687 75 28 42 **DOHAINIK DIRA**
- **ANTOLATZAILEA**: Iturrigorri Elkarlan eta Oñatiko Udala

"Bizi-energia handitu, gure gorputzarekin birkonektatu, emozioak orekatu, estresa, beldurrak, antsietatea... gutxitu, eta gorputz-egitura hobetzea dira gure emozioak egoki kudeatzeak dakartzan onuretako batzuk. Modu horretan, gure osasuna modu integralean hobetzen laguntzen dugu". **Iturrigorri Elkarlan** elkarteko koordinatzaile Maribel Pachecoren adierazpenak dira.

Leuzemiari eta bestelako gaixotasun hematologikoei aurre egin eta hezur-muinaren donazioen alde lan egiten duen elkartea da Iturrigorri Elkarlan. Osasunaren prebentzioa eta sustapena da bere lan ildoetako bat, eta, zentzu horretan, sei tailer emango ditu Oñatin, Udalarekin elkarlanean, 'Zure osasuna hobetu' izenburupean.

"Beldurrei eta angustia edo itoaldiei aurre egiten ikasi, eta fisikoki nahiz mentalki blokeatzen gaituzten emozio negatiboak egoki kudeatzeko jarraibideak deskubrituko dituzu tailerrean" azaldu digu Pachecok. Online izango da tailerra eta guztira sei saio izango dira (azaroaren 11tik abenduaren 16ra, ostegunetan / 18:30-20:00), egitura honekin: **1.** Sarrera. Sendatzeko tresna edo erreminta berriak; **2.** Gure gorputzean ditugun Txakrak (energia zentroak) orekatu; **3.** Inguratzen gaituen giroarekin lan egin; **4.** Ama zelulak; **5.** Ama-zeluela neuronalak; eta **6.** Loa. Nola prestatu ondo lo egiteko.

BIOINGENIERITZA KUANTIKOA

Bioingenieritza kuantikoa landuko dute tailerrean. Holistikan oinarritzen den sistema terapeutikoa da, eta galdutako bizi-energia berreskuratzea du helburu. Oreka emozionalari eragiten dioten arazoak diagnostikatu eta sendatzera zuzendutako metodologia da; bihotzaren pultsu kuantikoan oinarritzen den metodoa, bizi-organo horren frekuentzien irakurketa egokiak azaltzen baitu gure gaitz eta patologia askoren iturburua.

Maribel Pacheco / Iturrigorri Elkarlan

"Ez galdu aukera. Hartu zure osasunaren gidaritza"

Azaroaren 20ko manifestazio nazionalera joateko deia egin du EH Bilduk

▶ Oñatitik autobusa egongo da Bilbora joateko

Aske eta Berdinen Euskal Herria lortu arte! lelopean azaroaren 20an Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko deia luzatu du Oñatiko EH Bilduk.

"Hurrengo urteak erabakigarriak izango dira askatasun nazionala aldarrikatzeko eta eskubide sozial eta ekonomikoak blindatzeko, besteak beste" adierazi dute sustatzaileek eta, norabide horretan konpromisoa aldarrikatzeko unea da.

"Nazio librea, justua, feminista, ekologista, antifaxista, euskalduna eta baketsuarekin konprometituta gaude, eta ez dugu etsiko berau lortu arte... Euskal herritarren gehiengoaren nahiak egikaritzeko konpromisoa hartzen dugu eta azaroaren 20an Bilboko kaleetan fase berri bat irekitzera goaz. Batera abiatuko dugun bidea izango da, berriz elkartuta eta bat eginik, ilusioz eta konprometituta", adierazi dute manifestazioaren sustatzaileek.

AUTOBUSA OÑATITIK

Bilboko La Casillatik abiatuko da manifestazioa 17:30etan, eta bertara joateko autobusa irtengo da Oñatitik, 15:30etan. Arranon eman behar da izena autobuserako (10€ / langabe eta ikasleek 5€).

Lehoiaren atzaparretan galduta

» Arrikrutzeko lehoia aurkitu eta koba barruan hamabi orduz galduta egon zireneko bizipenen kontakizun nobelatua idatzi du Iñaki Zubeldiak

» 55 urte betetzen dira Jesus Manuel Marotorekin batera leizeetako lehoiaren hezurdura aurkitu zuenetik

Ezaguna da honezkero Iñaki Zubeldia (Ikaztegieta, 1954) oñatiarren artean. Berak aurkitu zuen, Jesus Manuel Marotorekin batera, leizeetako lehoiaren hezurdura Arrikrutzen, 1966ko udazkenean, eta aurkikuntza haren 55. urteurrena betetzen den honetan, ***Lehoiaren atzaparretan galduta*** liburua argitaratu du Oñatiko Udalaren eskutik. Aurkikuntza haren nondik-norakoak eta, ondoren, koba barruan, galduta, igaro behar izan zituzten hamabi orduetan izandako bizipen, beldur, haluzinazio eta estutasunen kontaketa nobelatua da.

Aurretik, Arrikrutzeko lehoiaren inguruan gaztetxoei zuzendutako ***Leize-zuloko misterioa*** fikziozko nobela argitaratua du Zubeldiak, baina oraingo hau gazte eta helduei zuzendutako liburua da, eta 1966ko aurkikuntzaren kontaketa nobelatua da.

Gogoratu, Arantzazuko seminarioan ikasten ari zirela aurkitu zutela lehoiaren hezurdura Zubeldiak eta Marotok, denbora librea baliatuz, Arrikrutzeko kobara sarri egiten zituzten irteera haietako batean. Sei orduko baimen berezia lortuta, planoetan agertzen zen, baina ordura arte sekula ikusi gabeko *Aranzadi* gelaraino iristeko asmotan abiatu ziren orduko hartan bi fraidegaiak, elizan sobratzen ziren kandela muturrez egindako zortzina zuzi edo antortxa motxilan hartuta, sei orduko ibilaldia egiteko nahikoa izango zirelakoan.

Iritsi ziren, bai, *Aranzadi* gelara, baina bertan dauden putzu sakonetako batean erortzeko beldurrez, behera begira gurutzatu zuten galeria osoa, bertan zeudela konturatu barik, eta huraxe izan zen beraien galbidea, hantxe despistatu baitziren; baina, aldi berean, leize-lehoiaren hezurdura aurkitzeko bidea ireki zien, izan ere, *Aranzadi* gelaren bukaeran (beraien ustez hasiera zena) dagoen ormatzarra inguratu eta handik lasterrera aurkitu baitzuten ia hiru metro luze zituen piztiaren (*Panthera Spelaea*) hezurdura ikusgarria,

Gutuna lehoiari

Argazkiak erakusten du nola aurkitu zuten lehoiaren hezurdura Arrikrutzen

> Jesus Altuna paleontologoak idatzitako epilogoarekin amaitzen da Iñaki Zubeldiaren liburua, baina azken aurreko kapituluan gutun berezi bat idatzi du egileak, Arrikrutzeko lehoiari zuzendua. "Bihotzetik irtendako zerbait izan da" azaldu digu Zubeldiak; "alde batetik barkamena eskatzen diot, milaka urtez pakean eta lasai egon zen lehoiaren bakea urratu genuelako, eta, bestetik, gu koba barruan galdu izana bere 'mendekua' izan bazen, gure barkamena ere baduela, noski, esperientzia hura ere zoragarria izan zelako, eta, azken batean, Arrikrutzeko lehoiak asko eman digulako, bai niri, bai Oñatiri eta baita Euskal Herri osoari ere".

oso-osorik, planoetan azaltzen ez zen galeria batean.

Orduak aurrera zihoazela-eta, kanpora irtetea erabaki zuten bi fraidegai gazteek, eta orduantxe hasi zen haien gurutze-bidea, irteera aurkitu ezinik, hamabi ordu pasa behar izan baitzituzten galduta, ilunetan, beldur-ikaraz, etsita, kobako sarreratik ia hiru kilometrora.

Arantzazun ere alarma guztiak piztu ziren, jakina, bi gazteak bueltatzen ez zirela ikusita, eta galdutako ikaskideen bila joateko maisu-ikaslez osatutako espedizioa antolatu zuten. Fraideak okerrena pentsatzen hasita zeuden eta, horregatik, biatikoa eta oliadura hartuta abiatu ziren Arrikrutzera, gazteak hilzorian aurkitu ezkero, Jainkoaren sakramentuak hartuta hil zitezen. Zorionez, ez zen halakoren beharrik izan, eta goizeko 6etan aurkitu zituzten galdutako bi gazteak, onik.

Zubeldiak xehetasun handiz kontatzen ditu orduko gorabehera eta bizipen guztiak liburuan. "Geroztik ehundik gora bider sartu izan naiz Arrikrutzeko koban, eta makina bat hitzaldi eman izan ditut ikastetxeetan; beraz, oso ondo gogoratzen ditut egun haietako gertaera eta sentipenak". Aspalditik zeukan pasadizo haiek liburu batean biltzeko gogoa Zubeldiak, eta Oñatiko Udalaren babesean argitaratu den liburu honetan jaso ahal izan ditu azkenik. Oñatiko turismo bulegoan eta herriko liburu dendetan eskura daiteke 12 eurotan.

Iñaki zubeldiaren **kontaketa**, **Gordailura** bisita eta **tailerrak**

Azaroaren 2an egin zen Iñaki Zubeldiaren 'Lehoiaren atzaparretan galduta' liburuaren aurkezpena udaletxeko areto nagusian, eta horren harira, bestelako ekintza batzuk ere antolatu dira datozen asteetarako.

GORDAILURA BISITA / azaroak 19
Irungo Gordailuan gordetzen da egun Arrikrutzeko leize-lehoiaren hezurdura, eta berau ikusteko bisita antolatu du Udalak. Azaroaren 19an egingo da bisita, 18:00etan, gutxieneko taldea (10 pertsona) osatzen bada. Erreserbak hilaren 15a baino lehen egin behar dira (943718808).

ZUBELDIAREN KONTAKETA / azaroak 25
Iñaki Zubeldiak Arrikrutzeko barrunbeetan galdu eta lehoiaren hezurdura aurkitu zuten eguneko gorabehera eta bizipenen inguruko kontaketa egingo du, azaroaren 25ean, turismo bulegoan, 18:00etan.

LEHOIAK OÑATIN TAILERRAK
azaroak 28 eta abenduak 8 eta 26
Azaroaren 28an eta abenduaren 8 eta 26an gaztetxoei zuzendutako 'Lehoiak Oñatin' tailerrak egingo dira Arrikrutz-Oñatiko kobetan (12:00) eta turismo bulegoan (16:30).

Turisten gaualdiak luzeagoak izan dira Oñatin, erkidegoan baino

EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak eman dituen datuen arabera, uda sasoian turistek Oñatiko ostatuetan egin zituzten gaualdiak luzeagoak izan ziren Gipuzkoan eta Euskadi mailan egindakoekin alderatuz.

Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan turisten bataz besteko gaualdi kopurua 1.96koa izan da (Araban 1.98, Bizkaian 1.90 eta Gipuzkoan 2.00) eta Oñatin 2 puntutik gorakoa izan da bataz besteko egonaldia: uztailean 2.27, abuztuan 2.26 eta irailean 2.63.

Logelen okupazio mailari dagokionez, uztailean %55.94koa izan zen Oñatin, abuztuan %66.17koa eta irailean %44.75ekoa.

Langile kopuruari dagokionez, uztailean 33 pertsonak jardun zuten lanean Oñatiko alojamenduetan, abuztuan 37k eta irailean 36k.

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko arg.: Roberto Míguez

Oñatiko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:
Oñatiko Udala
Zuzendaria:
Iñigo Arregi
Publizitatea:
Aratz Losada
Diseinua eta Maketazioa:
Aratz Losada
Kolaboratzaileak:
Jerardo Elortza eta Euskaltegia
Inprimategia:
Gertu
Tirada:
5.500 ale
Lege gordailua:
SS-357/91

Posta-e:
kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea:
publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Musika Eskola: antolakuntza egitura ez eraginkorra?

Peio Roa

Kontzejupetik 305. zenbakian, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako Zuzendaritza Taldeak (Aitor Madina, Arantzazu Bikuña eta Jaione Intxausti) langile baten kaleratzean nola jokatu zuten azaldu nuen. Bi urte baino gehiago iraun zuen prozesuaren amaiera agerian utzi nuen, portaera, jarrera eta Zuzendaritza Taldearen "modus operandi" onartezinekin. Eta bertako presidente ohiaren (Karmelo Alberdi) konplizitatea, onartezina ere.

Gardentasuna eta ahotsa eskatuz amaitu nuen idatzia. Pertsonalki, idatziz zuzendu natzaie eta jaso dudan erantzun bakarra, gai honi buruz haiengana gehiago ez zuzentzea izan da. Beraien ahalegin guztiak, gai honekin zerikusia duen guztia sistematikoki isilaraztera bideratu dira. Haien jarrerak hori erakusten duela dirudi. Baliteke beldur izatea, nire gertaeren adierazpenen ondoren (frogekin batera), prozesu honetan, interes pertsonalak eskolaren interesen gainetik gailendu zitezkeela erakusten dituen gertaerak azaleratu ahal izatea. Eta egia balitz larria litzateke.

Berriz ere antzeko zerbait gertatuko ez den esperantzarekin, egoera hau eta beste batzuk gertatzea uztearen arrazoietako bat, nire iritziz, hau izan daitekeela uste dut: eskolako gobernu organuen funtzionamentu "eraginkorra".

Alde batetik, Bazkideen Ohiko Batzar Nagusia dago (organo gorena) "bazkide pasiboek" ehuneko altu batean eratzen dutena (elkarte askotan gertatzen den moduan). Adibide garbia da Batzordeetara hain bertaratze historiko txikia izatea. Hain da urria, argi eta garbi ikusten dela gutxi baloratua dagoela eta beraien nagusitasuna zalantzan.

Bigarren gobernu organo bezala Zuzendaritza Batzordea dago (Zuzendaritza organo kolegiatua), non kide guztiek ez duten beti konpromezua eta inpartzialtasuna bezalako balioekin zuzendu beren ekintzak. Utzikeria, sumisioa edo adiskidekeria baizik.

Eta azkenik, Zuzendaritza Taldea dago (eskolako langileak), teorikoki oso botere mugatua duena. Baina, beste bi organoetako "gabeziek" bidea zabalik uzten zuten erakunde honek eskolaren intereserako ez ziren erabaki onenak hartzeko. Bere kideen gaitasun ezagatik edo beste interesengatik.

Norbaitek ekintza edo omisio bidez baimendu bazuen, norbaitek kontzienteki edo inkontzienteki agintea delegatu bazuen, agintaritza delegatzea ez da erantzukizuna delegatzea.

Nikolas Ugarte Umerez

Jerardo Elortza

Kale Zaharreko barberixan, aitta Doroteorekin lehenengo, bera bakarrik hurrengo, eta Igone alabiarekin batera azken aldera, ixa bizitza osuan lanian jardun ondoren, erretirau zan Nikolas orain dala urte batzuk. Tarte luze horretan oñatiar mordua izan eben bezero. Nikolas ule-apaintzaille ona izatiaz gain, komestante atsegiña be bazan. Horregatik, batari eta bestiari entzunda, gure herriko albiste, kontu eta pasadizo ugari ekixen.

Gaiñera, Oñatirekin zerikusixa eukain argazkixak edota periodiku-zatixak gordetia gustaitten xakon. Eta beste hainbat afiziño be baeukan. Informatzaille bikaiña suertau xakun betik, bere material balixotsuak eta argibide zihatzak guri samurketako etzoskulako iñolako ningunorik ifiñi. Benetan, zorretan gara fan barri dan lagunarekin. Milla esker, Nikolas!

Mekalki S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak
Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Erreferente eta marko berriak

Pixkana bada ere, gizarte parekideago baterako jauzia ematen ari gara. Eta hori lortu ahal izateko, erreferenteak behar dira. Lehen lerroan, ardura postuetan, kirolean...bada, albokoa da adibide horietako bat. Kasu honetan, herriko emakume gazte baten arrakastak, helmugako markoa erabat eraldatzen duela ikusi dezakegu.

LARTAUN ITURBE

OHAR ETA DEIALDIAK

Oñatiko ERNAIren aurkezpena

Azaroaren 13an Oñatiko ERNAIren aurkezpena egingo da Antixena gaztetxean. Goizean (11:30) Ezker abertzaleko gazte erakundeen historia eta bizipenak kontatzeko mahaingurua egingo da. Ondoren (15:00) bazkaria egongo da (Arrano tabernan dago apuntatzeko aukera), eta arratsaldeko 18:00etan egingo da Oñatiko ERNAI taldearen aurkezpena, aurtengo plangintza eta asmoen azalpenarekin batera.

Kontzertuekin emango diote amaiera egunari, Oñatiko *Mentertz* talde akustikoa, Durangaldeko *Gora Etorri* taldea, Oñatiko *Lizartxo* erromeria taldea eta, amaitzeko, *DJ Azido*-ren eskutik. "Borroka delako bide bakarra" parte hartzeko deia luzatu die Ernaik herriko gazteei.

'BERTAKOAK' aparkatzeko txartelaren 2022rako alta eta bajak tramitatzeko epea azaroaren 15era dago zabalik

Datorren urtera begira 'BERTAKOAK' aparkatzeko txartela eskatu edo ezeztatu nahi duten herritarrek azaroaren 15era arteko epea izango dute, HAZ bulegoan. Aurten 'Bertakoak' txartela duten herritarrei automatikoki berrituko zaie, kontrakorik adierazi ezean.

Jarraian adierazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuen jabeek eskuratu ahal izango dute 'Bertakoak' txartela: **Zona 5 Gunea** (AITA MORTARA): Kale Zaharra 1-29 eta 2-48, San Anton, Aita Madina, Aita Mortara, Foruen plaza, Portu kalea, Unibertsitate etorbidea, Maiatzaren 1. plaza, Bakardadeko Ama eta Zumeltzegi kalea. **Zona 6 Gunea** (BIDEBARRIETA): Bidebarrieta kalea, Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale, Kale Barria, Erementari, Ramon Irizar eta Aozaratza.

Tailerra (online): 'Nola eragiten diete kontsumitzailearen eskubideek enpresei?'

KONTSUMOBIDEk antolatutako tailerra. Helburua: enpresei tresnak eskaintzea, kontsumitzaileen eskubideak ezagutu eta errespeta ditzaten eta, horrela, kontsumo-gatazkak ekiditeko. Landuko diren edukiak: kontratuak, prezioak, merkealdia, itzulketak, bermea, gatazkak konpontzea, arbitrajea...

Azaroaren 16an izango da tailerra, online (14:30-16:00). Plaza mugatuak. Aurrez izena eman behar da. (QR kodean duzu bete beharreko formularioa).

Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin izango dira ostiraletako zine emanaldiak

Ostiral gaueko emanaldietan filmak jatorrizko bertsioan ematea erabaki du udaleko kultura sailak. Azpituluei dagokienez, euskarak izango du lehentasuna, aukera dagoen kasuetan, bestela gaztelerak. Euskarazko filma bada, azpituluak gazteleraz izango dira. Udalak azaldu duenez, pelikulak jatorrizko bertsioan ikusteak onura ezberdinak eskaintzen ditu: istorioarekin zuzenago konektatzea, errealitatea hobeto ulertzea, edota hizkuntzak lantzea, besteak beste.

Gezalaga Margoak
Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

GAZTELEKUKO SOTOA BERRIRO MARTXAN!!!

Covid 19ko pandemiaren ondorioz, Sotoko zerbitzua itxi behar izan genuen 2020ko urrira arte. Urrian, txanda sistema batekin ireki behar izan genuen edukiera kontrolatze aldera; hasiera batean, gehienez 6 pertsona egon ahal ziren txanda bakoitzean eta, ondoren, 10.

Bertako materialari dagokionez, jolas material guztia kendu behar izan genuen infekzio fokuak saiheste aldera. Horrela, zerbitzura zetozen haurrek beraien jostailuak ekarri zezaketen.

Pandemiaren bilakaerak azken aldian babes neurrien malgutzea ekarri du, eta horren ondorioz Gaztelekuko Sotoaren zerbitzua berriro martxan jarri genuen urriak 22an, normaltasunez. Horrela, Sotoaren ohiko ordutegia asteartetik igandera bitartean arratsaldeko 17:00etatik 19:45etara izango da.

Gogorarazten dizuegu, Sotoa 0-7 urte bitarteko haurrentzako zerbitzua dela, eta **hauek uneoro adinez nagusi den arduradun batekin egon behar direla**. Horrekin batera gogoratu ere bertako arauak betetzeko azken erantzukizuna umeekin dauden arduradun hauena dela. Bukatzeko aipatu gaur egun indarrean ditugun osasun neurriei jarraiki, 6 urtetik gorako haurrek zein helduek bertan uneoro maskara jantzita eduki beharko dutela.

Beraz bueltan dugu Sotoa, eta bertan elkar ikustea espero dugu, ongi etorri!

OÑATIKO GAZTELEKUKO XXVII. XAKE TXAPELKETA

Urtero bezala, Oñatiko Gaztelekuko Xake Txapelketa burutuko da. Aurtengoa XXVII. izango da. Eta azaroaren 7an, igandean, goizeko 9:00etatik aurrera burutuko da.

Suitzar erako jokoa izango da eta jokalari bakoitzak 15 minutu izango ditu bandera jaitsi arte. Izena emateko hainbat bide daude: Oñatiko Gaztelekuan, telefonoz (943 71 82 57), WhatsApp-ez (658 725 679) edo e-mailez (*gazteinformazioa@onati.eus*).

Oñatiarrek ez dute inskripzioa ordaindu beharrik izango eta, gainera, herritarrei zuzendutako sari bereziak lortu ahal izango dituzte!

atxi murka

#7. Ibilian

Ume zintzo eta lotsagabe bat legez

gustatuko litzaidake zuri zera galdetzea,

etxeko hautsak harrotzea,

biografia freskatzea

ibilian-ibilian

lokatzetan sartzea

memoria astintzea

eta hitz eginaz osatzea.

Eta zuk bitartean zure etxera eraman zaitzadan eskatzen didazu,

nik zure jaiotetxea zein den jakingo banu bezala.

Sortzailea bazara, animatu eta bidali zure lana: **atximurka@gmail.com** helbidera.

LOPE DE AGIRRE
ERREBELDE ALA KOLONIZATZAILE?

Duela 460 urte Espainiako Erregeren armadak Lope de Agirre erail zuela gogoratu eta salatzeko ekitaldia egin zen urriaren 27an, haren izena daraman kalean. Bertso eta abesti artean araoztarraren errebeldia eta Marañoien matxinada goratu nahi izan zuten, eta zalantzan jarri Espainiar historiografiak Lope de Agirreri buruz dioena. Herriko Sare Feministak, aldiz, haren kolonizatzaile izaera gogorarazi dute. Bertan bildu ditugu batzuen eta besteen ikuspuntuak.

LOPE AGIRRE; 460 URTE

» Urriak 27ko ekitaldiaren antolatzaileak

Urriak 27an, Lope Agirreren omenezko irudiaren aurrean ekitaldi bat egin genuen. Bertan, Agirre oñatiar (besterik demostratzen ez den artean) errebeldea, duela 460 urte Espainiako Erregeren armadak erail zuela gogoratu eta salatu genuen.

Horrez gain, Agirreren matxinada goratu genuen. Eta aipatu genuen Espainiar historiografiak behin eta berriz zikindu duela oñatiarraren errebolta, psikopata doilor bat besterik ez zela izan idatziz. Arrazoi politikorik izan ez balu bezala; injustiziaren aurrean, Agirre buru, Marañoiek antolatu zuten altxamendua odolzale baten eldarniotzat salduz. Euskal historiografiak berriz, ahaztuta eduki du, edo kolonizatzailetzat hartu (salbuespenak salbu: Ispizua, Oteiza).

Lope Agirre ez zen Ursuarekin ontziratu Dorado-a aurkitzeko; hark buruan zeukan palazio urrekara, askatasunaren jauregia zen. Ameriketan urteetan jasan zuen tratuak eragin zion oldarrak bultzatuta, Erregeri errebelatu eta Hegoamerikako Iparralde guztian nagusitu nahi izan zuen, Marañoiak lagun. Horretarako Amazonas osoa zeharkatu eta, Margarita irlatik, kontinentera iritsi zen, bosmila kilometro eta ia urtebeteko odisea arriskutsuan.

Gaur egungo Venezuelara iritsita, Espainiar inperio boteretsuari (itsasoaz besteladeko metropoliari), eta haren buru zen Felipe II.ari, gerra totala deklaratu zion, guztiz aparteko erabakimen gunea eratu nahian. Europaren aurrean independentzia politiko osoa! Horregatik izendatu zuen Simon Bolivarrek Ameriketako Askatzaileen aitzindari. Eta horregatik, era sistematiko batean, baztertu du Espainiar historiografiak; eta baztertu ez duenean, hiltzaile zoro bat aipatu digute, ia animalia bat, bere alaba ere hil zuena. Guk ez dugu Espainiaren bertsio ofizialik sinisten (ez orain eta ez lehen); horregatik Elvira Agirre hil zuenik ere zalantzan jartzen dugu. Auskalo ala izan zen edo ez!

Espainiak ez zion barkatu Felipe II. erregeri eskutiz lotsagabe hura idatzi izana, ez zion barkatu antolatu zuen atzera bueltarik gabeko desafio gogorra, “rebelde hasta la muerte”. Horregatik erail zuten, horregatik debekatu zuten bere izena inon aipatzea eta horregatik moztu zioten burua eta burdinazko kaixola batean sartu, gorputza laurkitu eta bazterretan esegi; mila bostehun eta hirurogeita batean izan zen, urriak 27an; zigor ejenplarra, inork haren biderik ez hartzeko abixua!

Espainiak Elkano eta Urdaneta behin eta berriz aldarrikatu eta goretsi ditu; Agirrerik inoiz ez; guk bai! Gora Lope Agirre errebeldea, gora Marañoien matxinada! ■

» *Felipe II.ari gerra totala deklaratu zion, guztiz aparteko erabakimen gunea eratu nahian*

ZURICH
Mª del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

HAU EZ DA GURE ERREBELDIA

» Oñatiko Sare Feminista

Lope Agirreri omenaldia egin nahi diotela eta, horren aurrean dauzkagun kezka eta ardura azaldu nahiko genuke.

Ez da kasualitatea Lope Agirre ezezaguna izatea. Izan ere, Amerikaren inbasioaren hastapeneko garaia "Urrezko Aro" izendatu du eskuin espainiarrak eta Lope deserosoa zaie. Ba guretzat ere deserosoa da, arrazoi oso ezberdinengatik, ordea.

24 urtez espainiar koroaren zerbitzura sarraski, espolio eta lurraldeen lapurretan jardun ostean, espainiar koroari planto egin zion. Baina Lopek ez zion uko egin "deskubritu" zuen lurralde horren espolioari. Alegia, espainiar koroari planto egin zion, ez dinamika kolonialistan aktiboki parte hartzeari. Ez dugu zalantzarik: Lope Agirre kolonizatzaile bat zen. Pertsonaia historiko hau historiko bihurtzen duen ezaugarria horixe bera da. Hain justu, dinamika kolonialaren baitan esan zion espainiar botereari "izorrai". Ez dirudi arrazoi kolektibo eta iraultzaileengatik egin zuenik; gehiago du botere eta egotik.

Hanka sartzea iruditzen zaigu gaur egungo irakurketa ideologikoaren baitan bere kolonizatzaile izaera bigarren mailan uztea; noski, ezkerreko ikuspegitik ari bagara, behintzat. Soilik pribilegio zuritik ken dakioke garrantzia garaiko eta egungo zapalkuntza bortitz honi; supremazia zuri europarretik asko dauka. Ez dugu esaten hau idazten gabiltzanok pribilegio zuria deseraikita daukagunik; esaten ari garena da oraindik asko daukagula egiteko, hausnartzeko, konturatzeko, eta bide horretan kolonizatzaile bati ezin zaio gorazarre egin. Larria iruditzen zaigu, kolonialismoan hain modu zuzenean parte hartu zutenekiko kritikotasun falta, besteak beste, Elkanorekin. Euskaldunok ardura hartu beharra daukagu eta kolonialismo historiko eta gaurkotuan izan dugun eta oraindik daukagun papera kritikotasunez aztertu. Izan ere, menperatutako herrien miseria gure aberastasuna izan da eta hala izaten jarraitzen du. Ardura hartzeko garaia da.

Gure ustez, euskaldunok, Euskal Herria autodeterminazioa eta burujabetza helburu dituen herri estatugabea izanik, behar-beharrezko ditugu ikonoak. Ulertzen dugu gure historia behin eta berriz ukatua, gordea, besteren ahotan eta interesen arabera kontatua izan den heinean erreferenteak falta zaizkigula. Horri dagokionez lan asko dago egiteke. Baina, kolonialismoa pairatu eta pairatzen duen herri zapaldu gisa, erreferente horiek hautatzean, hausnartu beharko genuke zein pertsonaia eta zergatik goratu nahi dugun. Guk jakin beharko genuke, zeinen bidegabea den boteretsuagoa den norbaitek gure partez erabakitzea, gu erabiltzea, gure aurka indarkeriaz jokatzea. Izan, gauzak oso gutxitan direnez zuri edo beltz, gaiari konplexutasunez heldu eta autokritika egin behar dugu; ezin dugu beste albo batera begiratu, are gutxiago guk.

Guk garbi dugu: Lope, Elkano eta antzeko gizonak presente izan nahi baditugu, izan dadila autokritika egiteko. Onar dezagun, behingoz, kolonialismo basatian mendebaldeko estatuek (baina, baita euskaldunok ere) izan dugun eta izaten jarraitzen dugun papera. Gure etorkizuna pentsatu eta ekiteko, historiaren irakurketa zintzoa egiteari beharrezko deritzogu, gure bazterrak arakatu eta norabide horretan, bestelako erreferente errebeldeak bilatuko ditugu. ■

» *Hanka sartzea iruditzen zaigu gaur egungo irakurketa ideologikoaren baitan bere kolonizatzaile izaera bigarren mailan uztea*

» *Espainiar koroari planto egin zion Lopek, baina ez dinamika kolonialistan aktiboki parte hartzera*

Gualbi asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

GIPUZKOAKO TXAPEL errekorra berdinduta

Gipuzkoako Pitch and Putt txapelketa irabazi du Ander Biainek, Irelore golf zelaiko marka onena berdinduta

49 KOLPETAN, PAR-aren AZPITIK 5, OSATU ZUEN BIAINEK IRELORE GOLF ZELAIKO IBILBIDEA (18 ZULO)

Orain arte Txema Beitiaren esku zegoen errekorra berdinduta, Gipuzkoako *Pitch and Putt* txapelketa irabazi du Ander Biain Galdosek (Oñati, 1999). Golflari gazteak 49 kolpetan osatu zuen Irelore golf zelaiko ibilbidea (18 zulo), Par-ari 5 kolpe kenduta. "Entrenamendu saio batean eginda neukan marka hori, baina txapelketa giroan zailagoa izaten da, presioagatik, eta oso gustura nago emaitzarekin. Uda partean sarritan etorri naiz jokatzera, eta banekien lan txukuna egiteko moduan nengoela, baina ez hainbesterako". Gainera, hasiera ez zen nahi bezain ona izan, 3. zuloan *bogey*-a egin zuelako (Par-aren gainetik bat), baina hurrengo lau zuloetan *birdie*-ak lortu zituen (Par-aren azpitik bat) eta bigarren itzulian beste bi *birdie* egin zituen, 49 kolpetan osatuz 18 zuloko ibilbidea.

Podiuma osatu zuten beste bi jokalariek baino hiru kolpe gutxiago emanda irabazi zuen Biainek Gipuzkoako txapelketa maila absolutoan.

ETXEAN EROSO

Biainek ondo ezagutzen ditu Oñatiko golf zelaiko zoko-moko eta 'tranpa' guztiak, eta horrek bere alde jokatuko zuen, jakina. Irelore golf zelaiak 9 zulo eta 18 irteera ditu (zulo bakoitzeko bi), eta behe aldeko zuloak, baso aldekoak, dira zailenak. "Bai, zuhaitz asko daude, eta horrek ematen dio zailtasun maila eta baita xarma berezia ere golf zelai honi" dio Biainek. "Oñatin ondo moldatzen dena, beste edozein zelaitan jokatzeko prest dagoela esaten dute".

Gaztetxotan irabazi zuen sariren bat, baina absolutu mailan hauxe da Biainek lortu duen aurrenekoa. "Egia esan, orain arte Oñatin antolatu ohi diren txapelketetan bakarrik parte hartu izan dut, parean egokituz gero, baina hemendik kanpora ez naiz sekula lehiatu". Aitortzen du, hala ere, Gipuzkoakoa irabazi izanak hauspotu egin duela, eta ez du baztertzen datorren urtean Euskadiko edo Espainiako txapelketako probaren batean parte hartzea. "Egia esan, urte eta erdiko pandemia aldiaren ondoren, txapelketa gosez nago, eta gustatuko litzaidake beste erkidego batzuetako jendearekin lehiatzea. Katalunian, bereziki, *Pitch and Putt*-en jokatzeko zaletasun handia dago, eta esperientzia polita litzateke".

Seguruenez, ez du urrutira joan behar izango Espainiako txapelketan parte hartzeko, Irelore golf elkarteak estatu mailako *Pitch and Putt* txapelketako proba puntuagarrietako bat Oñatin jokatzeko eskaera luzatu baitio federazioari.

ENGANTXATUTA

Hamar bat urte zituela hasi zen golfean jokatzen Ander, aitaren arrimuan, eta, gero, denboraldi

«Banekien lan txukuna egiteko moduan nengoela, baina ez hainbesterako»

«Orain arte, Oñatin soilik aritu naiz baina gustatuko litzaidake beste erkidegoetako jendearekin lehiatzea»

ANDER BIAIN GALDOS
Golflaria

DUN

luze batez golfa albo batera utzia izan bazuen ere, azken urteotan katigatuta dagoela aitortu digu. "Bai, ikusi ere asko ikusten dut. Jon Rahmen bideo asko ikusten ditut Internetez, eta horrek laguntzen du ikasten eta hobetzen: makilei heltzeko modua, hanken posizioa...".

Astean birritan jokatu ohi du golfean. "Normalean, larunbat goizak aprobetxatzen ditut hona etortzeko, eta, astean zehar, ikasketek, lanak eta pilotako entrenamenduek uzten badidate, saiatzen naiz ordu pare bat ateratzen hona etortzeko".

PILOTAN ERE BUELTAN

Golflaria ez ezik, pilotaria ere bada Ander, eta Suedian eman duen *Erasmus* urtearen ostean, hasia da berriz ere entrenatzen. "Orain gehiago ibiltzen naiz entrenatzaile lanetan, gazteekin, eta epaile lanak egiten, baina jokatzen jarraitzeko asmoa ere badut. Urtebeteko etenaren ostean eskuak bigun samar ditut, baina, poliki poliki, maila hobea lortzea espero dut". ■

ESPAINIAKO TXAPELKETA OÑATIN

Datorren urteko Espainiako *Pitch and Putt* txapelketako proba puntuagarrietako bat Irelore golf zelaian jokatuko da, ziurrenera. Oñatiko klubak eskaera egina du federazioan eta, dena ondo bidean, modalitate honetako golflaririk onenak bertatik bertara ikusteko aukera izango dugu (data zehaztu barik dago). Irelore klubak 150 bazkide ditu egun; hilean 40€-ko kuota ordaintzen dute eta nahi bestetan joan daitezke bertan jokatzera. Bazkide izan barik ere joka daiteke, 10€ (9 zulo) edo 15€ (18 zulo) ordainduta (asteburuetan 15€ eta 20€). Golf ikastaroak ere ematen dituzte, haur nahiz helduentzat, goiz eta arratsaldez. Informazio gehiago: 665739477.

MOTZEAN

Etxekoa nagusi Aloñako Igoeran

MENDI LASTERKETAK Oñatiar bat izan dugu nagusi, aurreneko aldiz, Aloñako Igoeran, Malen Osa 18 urteko gaztea izan baita azkarrena (2:26:23) emakumezkoetan. Oihana Azkorbebeitiak (2:28:23) eta Ainara Uribarrik (2:34:46) osatu dute podiuma. Gizonezkoetan Aitor Ajuria otxandiarra (2:04:46) izan da nagusi, eta Imanol Goñi (2:08:33) eta Beñat Etxabe (2:09:33) igo dira podiumera.

URIBARRI EUSKADIKO TXAPELDUN. Ainara Uribarrik garaipena lortu du Euskadiko KM Bertikaleko txapelketan. Korrikalari oñatiarrak 45:10ean osatu zuen Araia eta Aratz arteko ibilbidea (4,8 km. eta +850m). Bestalde, Amasa-Villabonako mendi duatloian bigarren sailkatu zen.

Mikel Ugarte 9. Mallorcako Ironmanean

TRIATLOIA Handia egin du beste behin Mikel Ugartek. Urriaren 17an Mallorcan jokatu zen Ironmana 8:13:39an osatu zuen Atletico San Sebastian taldeko triatleta oñatiarrak, PRO kategoriako 9. postuan helmugaratuz (estatu mailako lehen atleta); 48:43an osatu zituen igeriketa saioko 3,8 km.-ak, 4:35:18an bizikletako 180 km.-ak, eta 2:44:35an maratoia. Korrika saioko azken bi kilometroetan pittin bat behera egin zuen, baina, gainerakoan, karrera perfektua atera zitzaiola esan zuen Ugartek.

BIKUÑA PODIUMEAN. Miren Josune Bikuña duatleta oñatiarra 3. sailkatu da Durangoko eta Gasteizko duatloietan. Gainera, Durangon taldekako sailkapena ere irabazi zuen Sestaoko taldekideekin batera.

Arkonada bigarren Hiru Hondartzetako krosean

LASTERKETA HERRIKOIAK Saioa Arkonada bigarren sailkatu zen Donostiako Hiru Hondartzetako krosean, eta hirugarrena izan zen astebete beranduago, 15 kilometroko klasikoan.

Oñatiko XVII. Xake Txapelketa Azaroaren 7an

XAKEA Ohi bezala, Gaztelekuan jokatuko da Oñatiko XVII. Xake Txapelketa, azaroaren 7an, goizeko 9:00etan hasita. Ia 800 euro banatuko dira saritan. Lehen oñatiarrek ere sari bana jasoko dute.

JUAN CARLOS IRIZAR gogoratuko dute Musikegunetan

Apirilean zendu zen musikari oñatiarra omenduko dute azaroaren 21ean, Musikegunak jardunaldien baitan • Aran Saiz hirukoteak eta zenbait musikari gonbidatuk parte hartuko dute



Irizarrek Oñatiko auzoei eskainitako CDa aurkeztu zuen eguneko argazkia

Oñatiko 43. MUSIKEGUNAK jardunaldien baitan azaroko lau igandeetan izango diren kontzertuetako bat, hilaren 21ekoa, Juan Carlos Irizar (Oñati, 1951-Aizarnazabal, 2021) zenari eskainita egongo da. Konposatzailea, piano-jotzailea, orkestra-, banda- eta koru-zuzendaria, sortzaile oparoa izan zen Zubillagan sortutako musikaria, eta Oñatiko udalak omenaldi kontzertua eskaini nahi dio, hark utzitako ondarea balioan jarri eta esker ona adierazteko.

ARAN SAIZ HIRUKOTEA

Irizarren musika entzun ahal izango da kontzertuan, noski, eta, hain zuzen, harekin familia loturak zituen Aran Saiz pianujole oñatiarraren taldeak (Iosu Izagirre -baxua- eta Hasier Oleagarekin -bateria- osatzen duen hirukotea) joko ditu Juan Carlosek konposatutako doinu ezagun eta kuttunenetako batzuk.

Aran Saiz hirukotearekin batera, Irizarrekin harremana izan zuten beste musikari gonbidatu batzuek ere parte hartuko dute omenaldian: Xabier Zeberio -biolina-, Karmelo Bengoetxea -akordeoia-, Iker Orozco -oboea-, Xabier Ugarte -gitarra- eta Jesus Mari Aranburu -baxua-.

NATURA, HERRIAK ETA HIRIAK, ETA IRIZARREN BEGIRADA

Hiru zati izango ditu kontzertuak. Lehenengoan, Irizarrentzat inspirazio iturri nagusietako bat izan zen naturarekin lotutako doinu batzuk entzungo ditugu.

Bigarren zatian, herri, hiri eta pertsonei eskainitako abestietako batzuk entzungo ditugu. Musika zen esker ona adierazteko modua Juan Carlos Irizarrentzat, eta, hala, bere bizileku izandako tokiei eta berarengan arrastoa utzi zuten pertsonei eskainitako hainbat abesti konposatu

SARRERAK: Udalaren webgunean, leihatila digitalean eta Txokolateixan eskuratu ahal izango dira sarrerak (**8€**). Musikegunetako lau kontzertuetarako bonoa ere (**25€**) eskuratu ahal izango da .

oñabike
oñabike.com
Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65
BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK

zituen. Atal honetan entzungo ditugu, adibidez, *Donosti Romántico* disko arrakastatsuan edo Oñatiko auzoei eskainitako CDan jasotako doinuetako batzuk.

Hirugarren zatiak Irizarren alde solidarioa izango du ardatz. Musikaren bidez jendea zoriontsu egitea gustatzen zitzaion Juan Carlosi, eta, ildo horretan, Aita Menni zentroarekin kolaboratu zuen (bertako emakumeen abesbatzako zuzendaria zen), eta Beasaingo Errehabilitazio Psikosozialerako zentrora ere joaten zen, besteak beste. Atal honetan, Arrasateko ospitale psikiatrikoari eskainitako abestia joko du Aran Saiz hirukoteak, eta *Maitasun abestia* izeneko kantarekin borobilduko dute kontzertua. Denera, Irizarrek konposatutako bederatzi abesti entzuteko aukera egongo da, goi mailako musikariek interpretatuak.

SORTZAILE OPAROA

Musikari erabat lotutako bizitza izan zen Juan Carlos Irizarrena. Donostia, Madril, Erroma eta Paueko goi-eskoletan egin zituen piano, konposizio eta orkestra zuzendaritza ikasketak. Hainbat orkestra, abesbatza eta musika banda zuzendu zituen, eta Oñatiko parrokiako organo-jole titularra ere izan zen, eta baita musika eskolako zuzendaria ere.

Sormen lanari dagokienez, berriz, ondare izugarria utzi digu Irizarrek: 35 disko eta beste hainbat konposizio (film eta dokumentaletarako soinu bandak, antzerkirako musika, Donostiako zinemaldiaren ereserkia, Bilboko Mari Jaia martxa, Euskararen aldeko jaialdietako abestiak, haurrentzako musika... Pianorako dozena bat partitura liburu ere plazaratu zituen eta musikoterapia saioak ere egiten zituen, besteak beste Arrasateko Aita Menni ospitalean. Iragan apirilaren 22an zendu zen 69 urte zituela. ■



35 disko grabatu zituen Irizarrek, beste hainbat grabazioren artean eta pianorako partitura liburuak ere argitaratu zituen

IÑAKI OLALDE
Kultura zinegotzia

Apirilaren 22an zoritxarreko albistea jaso genuen, Juan Carlos Irizarren ustekabeko heriotza, eta Udalak erabaki du berari eskaintzea Musikegunak jardunaldietako kontzertuetako bat, eta, gainera, oñatiar piano-jotzaile batek (Aran Saiz) gidatua. Juan Carlos Oñatitik kanpo urte asko bizi izan bazen ere, oso presente izan zuen beti bere sorterria. Horren lekuko, Oñatiko auzoei eskainitako abestiekin grabatutako diskoa, edo herriko elkarte gastronomiko ezberdinekin egin izandako kolaborazioak. Beraz, uste dut merezia duela omenaldi xume hau.

ARAN SAIZ
Omenaldiaren antolatzailea

Udalak proposatu zidan Juan Carlos Irizarren omenezko kontzertua antolatzea, eta, egia esan, ez nuen inolako zalantzarik izan. Txikitan, familia-harremana izan nuen berarekin eta, adibidez, piano ikasketa egiten hasi nintzenean, Juan Carlos bera joan zen nire gurasoekin batera nire lehen pianoa erostera. Omenaldi hau antolatzeak bere musika, bere lana eta bere ibilbidea eta konpromisoa (Aita Mennin egiten zuen lana...) hobeto ezagutzeko aukera eman dit, eta oso aberasgarria izan da niretzat. Uste dut polita izango dela omenaldi-kontzertua.

EGOITZ ZABALA
Aita Menni

Juan Carlos Irizarrek lotura handia izan zuen Aita Menni ospitalearekin, batez ere bertako pazienteekin. Musika terapia bezala erabiltzen zuen eta pazienteen bizitza hobetzen saiatzen zen. Gainera, oso inplikatuta zegoen guk Liberian (Afrika) dugun zentroarekin. Hango emakumea eta osasun mentalaren inguruko zentro bat da, eta Juan Carlosek kontzertu ezberdinak egin zituen harako dirua biltzeko. Beraz, alde batetik, musika osasuna bultzatzeko erabiltzen zuen hemen, Aita Mennin, eta, bestalde, Afrikako proiektuan musika elkartasun bihurtzen zuen.

XABIER UGARTE
Musikaria

Juan Carlosen ekarpen inportanteena, nire ustez, Aita Madinaren 'Arantzazu' poema sinfonikoaren grabaketa izan zen. Bere zuzendaritzapean grabatu genuen Bartzelonan, berak kontratatutako *Ciutat de Barcelona* orkestrarekin. Lan bikaina egin zuen. Aurretik orkestrako lan osoa grabatu zuen, eta ondoren joan ginen Oñati Abesbatza eta Oñati nahiz Elgoibarko parrokiko koruak ahotsak grabatzera. Lan ederra atera zen. Gerora, ibilbide oparoa egin zuen musika erromantikoaren arloan, baina ni poema sinfonikoaren grabaketan egin zuen lan izugarriarekin geratzen naiz.

Oñatiko 43. MUSIKEGUNAK

EGITARAUA

AZAROAK 7 / Santa Ana, 19:00

ARTURO DUO VITAL
Aire boskotea: Sara González (flauta), David Tejero (oboe), Antonio Gutiérrez (klarinete), Angel Gomarín (tronpa) eta Fernando Aja (fagot).

AZAROAK 14 / Santa Ana, 19:00

MARIA BERASARTE
Lurra eta Bidea proiektuak bere lurrari eta jatorriari oda forma ematen dion istorioa irudikatzen du. María Berasarte (ahotsa), David Azurza (ahotsa), Joseba Irazoki (gitarra) eta Igor Telletxea (perkusioa).

AZAROAK 21 / Santa Ana, 19:00

JUAN CARLOS IRIZARREN OMENEZKO KONTZERTUA
Aran Saiz Hirukotea eta gonbidatuak

AZAROAK 28 / Santa Ana, 19:00

ARAH
Bazen behin emanaldiak euskal tradizioa eta abangoardiara ekartzeaz gain, obra berriak aurkeztea du helburu. Ganbara musika eta dantza garaikidea. Arah taldea: Garazi Zabaleta (pianoa), Sara Zufiaurre (klarinete), Larraitz Oiartzabal eta Raquel Cortinas (biolina), Delphine Dupuy (biola) eta Gabriel Mesado (biolontxelo).

• SARRERAK •

Musikegunetako kontzertuetako sarrera arruntak **8€**-tan salduko dira, baina **LAU EMANALDIETARAKO BONOA** eskuratzeko aukera ere badago **25€**tan, udalaren webgunean eta Txokolateixan.

Musika bandak eta Udalak hitzarmena berritu dute

Azaroaren 21ean emango du bandak lehen kontzertua Aitor Biainen zuzendaritzapean

Oñatiko musika bandak etapa berri bati eman dio hasiera Aitor Biainen zuzendaritzapean, eta Udalak babesa ematen jarraitzeko konpromisoa berretsi du, datozen lau urteetarako lankidetza hitzarmena berrituz (urtero 84.700€ diru laguntza jasoko du musika bandak).

Aitor Biain, zuzendariak, eta Iñigo Ugarte, presidenteak, ikasturte berrirako egitasmoen aurrerapena egin zuten. Hala, urtean zehar gai zehatz ezberdinen inguruko sei kontzertu ('Gutizia') eskainiko dituzte kiroldegiko pilotalekuan. Aurrenekoa azaroaren 21ean izango da, 'Munduan zehar' izenburupean. Martxoko emanaldia haurrei zuzendutako kontzertu pedagogikoa izango dela ere aurreratu zuten.

Izan ere, publiko berria erakartzea eta musika espazio berrietara irekitzea izango dira musika bandaren helburu eta erronka nagusietako batzuk. Ildo horretan, herriko bi auzotan kontzertu bana emateko asmoa ere aurreratu dute.

'Totelak' eleberria plazaratu du Fermin Etxegoienek

Arg.: Berria

Saiakera, eta fikzioa uztartzen dituen *Totelak* eleberri hibridoa plazaratu du Fermin Etxegoien oñatiarrak Erein argitaletxearen eskutik. Etxegoienek kuttunak dituen hainbat gai lantzen ditu bertan (euskara, kultura, identitatea...) eta horien inguruan ditugun kontraesanak eta mugak jorratzen ditu.

ZURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

Egitasmo berria Pake Lekun

Kultura eta **natura** uztartzen dituen irteera programa antolatu dute. Lehenengoa azaroaren 23an izango da: San Telmo + Chillida Leku

'KULTURA ETA NATURA' izenburupean egitasmo berria jarri dute abian Pake Leku elkartean. Asmoa da, bi hilabetetik behin irteera bat egitea, autobusez eta egun osorako; goiza kultura arloko leku itxi baten igaroko dute, eta arratsaldean naturaz gozatzeko aukera izango dute, aire librean.

Kultura mailan, Euskal Herriak dituen hamaika museo ederretatik bat bisitatuko dute irteera bakoitzean, ahal dela bisita gidatuen bidez. Naturari dagokionez, geologia, botanika, arkitektura, artea edota historia aldetik adierazgarriak diren lekuak bisitatzea da asmoa. Gainera, irteera aurreko egunetan ekitaldiari lotutako hitzaldi bat antolatuko da.

Herriko erretiratu guztiak gonbidatuta daude, baldin eta bazkide egiten badira hilero euro bateko kuota ordainduta. Irteera bakoitzean orri bat banatuko zaie parte hartzaileei, informazioarekin eta inkesta batekin, eta orri horretan hurrengo irteera bozkatu ahal izango da. Gehiengoak erabakitakoa errespetatuko da. Irteera-proposamen berriak egiteko aukera ere egongo da.

Bost herrialdeetan (Iparraldea batean sartuta) egiteko moduko irteerak proposatu dira, eta txandakatuz ibiltzea da asmoa, herrialde batetik bestera. Baina parte hartzaileen hobekuntza proposamenak kontuan hartuko dira.

Partaide bakoitzak 15 € ordainduko ditu izena ematerakoan, autobusaren eta sarreren gastuak estaltzeko. Gainerakoa, Pake Lekuko 'Kultura eta Natura Sailak' jarriko du. Bazkaria, bakoitzak berea ordainduko du (erretiratuen elkarteren bat, ahal dela, edo eguneko menuren bat proposatuko da).

Donostiako San Telmo museoa bisitatuko dute azaroko irteeran. Elkanoren mundubirari buruzko erakusketa dago ikusgai bertan, besteak beste.

Arteak eta naturak bat egiten duten Chillida Lekun

AURREIKUSTEN DIREN IRTEERETAKO BATZUK

Gipuzkoa:
- Albaola museoa+Txingudi Ekoetxea
- Barandiaran museoa+Flyscha Geoparkea

Bizkaia:
- Arte Ederren museoa+Bizkaiko zubia
- Euskal Museoa+Gaztelugatxe

Araba
- Artium Museoa+Santa Katalina lorategia
- Natur Zientzien museoa+Gesaltza Añana

Nafarroa
- Nafarroako Museoa+Iratxeko monastegia
- Oteiza Museoa+Peru-Harri erakusketa

Iparraldea
- Euskal Museoa (Baiona)+Sarako leizeak
- Edmond Rostand museoa (Cambo) + Mitologia eta sorginkeria (Senpere)
- ...

Mendiko FEDERATU KANPAINA abian

Aloña Mendiko Mendi sailak datorren urterako federatu kanpaina abian jarri du.

Aurtengo federatuei automatikoki berrituko zaie txartela, kontrakorik adierazi ezean, egun duten kobertura maila berbera mantenduz.

Estaldura mailan aldaketak egin nahi izanez gero, edo federatu berriak tramitatzeko, Mendi saileko ordezkariak Aloña Mendiko egoitzan egongo dira **azaroaren 9, 11 eta 17an** (19:15-22:30).

Internetez ere egin daiteke tramitea, beharrezko informazioa ***alonamendi.mendi@gmail.com*** helbidera bidalita, **azaroaren 21a** baino lehen.

Modu batera edo bestera, hauxe da txartelak tramitatzeko behar diren datuak: izen-abizenak, jaiotze data, helbidea, NAN zenbakia, kontu korronte zenbakia, telefonoa, posta elektronikoa, federatu nibela (Euskal, FEDME...), eta gehigarriak (Frantziar Pririneoa, mundu osoa, BTT, pistako eski alpinoa, snowboard).

Prezioak Euskal Mendi Federazioaren asanbladak onartutakoak dira, eta bertako webgunean kontsulta daitezke. Aloña Mendik gogorarazten du, klubak antolatzen dituen irteeretan parte hartu ahal izateko federatuta egon behar dela.

AZAROKO IRTEERA

Pandemia aurreko jarduna berreskuratzen hasi da Aloña Mendiko mendi saila, eta, besteak beste, hileroko irteera antolatzen hasiko da berriz ere. Lehenengoa **azaroaren 21ean** izango da, Oñatiko mugarrien hirugarren zatia: Brinkola-Arantzazu.

BATUAK S.L.
Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

MUSIKA

AZAROAK 6 / 19:00

'TOTAL BACH'

Ganbara Abesbatzak eta Aequus Ensemble orkestrak Johan Sebastian Bach-en obrekin osatutako kontzertu sakroa eskainiko dute. Sarrerak (10€), udalaren webgunean eta Txokolateixan. Arantzazuko santutegian.

AZAROAK 6 / 21:30

LEHEN LERROA + DIRTY OLD GASTEIZ

Oñatin sortu berri den taldearen estreinaldia eta Gasteizko punk oi! taldea. Sarrera: borondatea. Gaztetxean.

AZAROAK 21 / 13:00

OÑATIKO MUSIKA BANDA

Oñatiko Musika Bandak Aitor Biainen zuzendaritzapean emango duen lehen kontzertua. Sarrera (dohainik) beharko da. Zubikoa pilotalekuan.

AZAROAK 28 / 12:30

HEGAZKIN

Sintetizadore, gitarra elektriko eta ahotsa baliatuz, popa, trip-hopa...egiten duen taldea. Sarrera: 5€/3€. Gaztetxean.

EKITALDI BEREZIAK

AZAROAK 19 / 21:00

MUS TXAPELKETA

Azken urteotan ohitura bilakatu den Mus Txapelketa. Gaztetxean.

AZAROAK 24 / 18:00

GAZTAINA JANA

Kultur astearen baitan (1€). Pake Lekun.

AZAROAK 25 / 17:00

BINGO BEREZIA

Kultur astearen baitan. Pake Lekun.

HITZALDIAK

AZAROAK 17 / 18:30

'EUSKAL ESPARRU KOMUNIKATIBOA'

HizlariaK: Martxelo Otamendi, Josu Amezaga eta 'Pantailak Euskaraz' taldeko kide bat. EH Bilduren 'Hamar gai, hamaika berba' zikloaren baitan. Kultur etxean

AZAROAK 22 / 17:30

'ELKANO, EL HÉROE VASCO QUE DIO LA PRIMERA VUELTA AL MUNDO'

Hizlaria: Jose Antonio Azpiazu, Pake Leku elkartearen Kultur Astearen baitan. Sarrera doan. Pake Lekun

KZ GUNEKO HITZALDIAK

'Deskargatu zure Covid pasaportea, ziurtagiriarekin eta ziurtagiririk gabe' (azaroak 9 eta 11, 12:00etan); 'QR kodeak erabiltzea' (azaroak 16 eta 18, 19:00etan); 'Identifikazio eta sinadura digital motak' (azaroak 23 eta 25, 12:00etan); 'Zertarako balio dute Siri edo Alexa bezalako asistenteek?' (azaroak 30 eta abenduak 2, 19:00etan). KZGUNEATIC Youtube-ko kanalean

IKASTAROAK

AZAROAK 13 - ABENDUAK 18

ARGAZKI IKASTAROA

Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa. Azaroaren 13tik abenduaren 18ra, larunbatetan (9:00-13:00). Plaza mugatuak (12). Prezioa: 90€. Informazioa eta izen-ematea: *plazaoladigital@gmail.com* eta Plazaola argazki dendan.

IKUSKIZUNAK

AZAROAK 20 / 16:30 ETA 18:00

PAILAZOAK

Tomaxen Abenturak pailazoen 'Adi, grabatzen, ekin...' ikuskizuna, Zuazola institutuko aretoan, guraso elkartearen eskutik. Bi emanaldi izango dira: 16:30 eta 18:00etan. Sarrerak (5€) Urgain-Errekalde Herri Eskolan salduko dira azaroaren 3 eta 4an (16:30etatik aurrera). Ondoren, Txokolateixan egongo dira eskuragarri (2 urtetik beherako haurrek ez dute ordaindu behar, baina sarrera aurrez eskuratu behar dute). Zuazola institutuan.

ZINEA

AZAROAK 6 / 8:00-19:00

OÑATIKO XII. LABURMETRAI RALLYA

Film emanaldia eta sari banaketa, Santa Ana aretoan, 21:30etan (streaming bidez OLR youtube kanalaren bidez.

AZAROAK 26 / 17:30

ZINE EMANALDIA

'Hotel Marigold' filma Pake Lekuko kultur astearen baitan. Dohainik. Pake Lekun.

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73
ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

NII moda
MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

IPUIN KONTAKETA

Gorputz osoko ipuinak

UDAL LIBURUTEGIAN azaroak 25

'Ostegun kontalariak' programaren baitan, 4-5 urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa, Izaskun Mujikaren eskutik. Ordu erdiko bi emanaldi izango dira, 17:30etan eta 18:15etan. Gonbidapenak eskuratzeko izen-ematea azaroaren 15etik aurrera udal liburutegian.

TERTULIXAN SAIOAK

Udal liburutegiko euskarazko irakurle taldea azaroaren 23an elkartuko da, eta gaztelerazkoa hilaren 30ean, *Desio izeneko tranbia* (Tennesse Williams) eta *La España vacía* (Sergio del Molino) liburuez jarduteko. Idazketa Lantegikoak hilaren 15ean batuko dira.

LIBURUTEGIA

Hileko gomendioa

Freixas psikologo eta ikertzaileak, gerontologia kritiko feministan aitzindariak, zahartzaroari lotutako estereotipo negatiboak zalantzan jartzen ditu, 18 urteetakoa baino zoriontsuagoa izan daitekeen bizitzako etapa hau desdramatizatuz. Irakurketa eraldatzeko bide gisa!

ZINEA

ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00)). Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Azaroak 4 - 8

ZINE KLUBA: Un segundo
NAGUSIAK: El buen patrón
GAZTETXOAK: Ron da error

Azaroak 11 - 15

ZINE KLUBA: Petite Maman
NAGUSIAK: Érase una vez en Euskadi
GAZTETXOAK: Zutik

Azaroak 18 - 22

ZINE KLUBA: Queridos camaradas
NAGUSIAK: Último duelo
GAZTETXOAK: Familia Adams-2

Azaroak 25 - 29

ZINE KLUBA: Lo que no te mata
NAGUSIAK: La crónica Francesa
GAZTETXOAK: El lobo y el león

FARMAZIA

ANDUAGA
San Lorentzo 3 ☏ 943 78 21 16
Azaroak 3, 4, 12, 13, 14, 22 eta 23. Abenduak 1 eta 2.

IGARTUA
Kale Zaharra 1 ☏ 943 78 01 22
Azaroak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25. Abenduak 3, 4, 5 eta 6.

GARATE
Kale Barria 42 ☏ 943 78 05 58
Azaroak 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28. abenduak 7.

ULDAIN
Kale Barria 6 ☏ 943 78 11 28
Azaroak 10, 11, 19, 20, 21, 29 eta 20. Abenduak 9.

MERKATU TXIKIA

GARAJEA ITXIA SALGAI Ugarkaldeko 1-2 atarien azpian (17,53m²). Sotoan (-1 solairuan). Kotxe handi bat eta bizikletak sartzeko lekua. Sarbide erosoa. Oso ondo zaindua. Deitu: 697745137 (Maria)..

ETXEBIZITZA ALOKATU 24 urteko oñatiar bat naiz eta alokairuko etxebizitza baten bila nabil. Eskaintzarik izanez gero, 607020350.

ETXEBIZITZA EROSI Apartamentua edo pisua erosi nahi dut Oñatin: 680 398 022

ETXEBIZITZA ALOKATU Etxebizitza alokatu nahi dut Oñatin. 3 semealaba ditut, kontratu mugagabea eta egonkortasun ekonomikoa: 635 706 983 (Julieta)

BANATZAILE BAIMENDUA
Zuntza 600 Mb Simetriko | Mugikorra 7 GB + Dei mugagabeak + telefono finkoa + 1Gb-ko linea bat doan
IRAUNKORTASUNIK GABE
BETIRAKO 42 € HILEAN BEZa barne
2. etxebizitza Zuntza 600 Mb + finkoa 19 €
KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN
Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati
943 09 06 00
LIZKER INFORMATIKA
guuk
ZUNTZA MUGIKORRA TB
BEZa barne. Eskaintza 2020/11/30ra arte egongo da indaman Euskadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB-ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hauetan bada, linea osagarriek "Mugikorra Bakarrik" tarifako lineen prezioak izango dituzte, GB eta deietarako minutu kopuru berarekin, 1GB-ko doako Guuk tarifaren kasuan, prezio berria 6,5€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorren gehieneko kopurua 4 izango da, linea nagusia kontuan hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorrik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: finko eta mugikor nazionaletarako dei mugagabeak, 7GB eta 40MB erakin. Muga hori gainditzean, abiadura 16 Kb/s-ra jaitsiko da. Nahi dizunean eman diezaiokezu baja zerbitzuari, baina lideratzailea 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 121€-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZa barne). Kontsultatu gainerako baldintzak hemen: www.guuk.eus

Itten bat

(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (8)

UDAZKEN KOLORETAN

'Oi, lur, oi, lur
oi, ene lur nerea…
oi, goiz eme,
parre gozoz ernea' ♬

Amaia: Zer habil, Jon, kantore hasi haiz, ala?
Jon: Ez orainddiok, baiña kantu hau hain don ederra, berez-berez hasten naun kantuan neure kasa!
A: Ondo xagok hori, baiña Benitok dakon kantuetatik eztok eder bakarra, beste asko be eder askuak dittuk!
J: Hiri, bat apartaittekotan, zein gustaitten xan, ba?
A: '*Udazken koloretan*', bikaiña dok!
J: Bai, kantu horren doiñuak geure barrura eruaten gaixon, hain don melankolikua!
A: Lagun baten despedidia dok, eta momentu horreik holakuak izaten dittuk, emoziño haundikuak, hunkigarrixak …
J: Bai, baiña kontuz! Kantu hori ezton edozein momentutan entzutekua; izan be, isiltasuna, norberarekin egoteko gogua eskaketan xon, agur bat don, udazkena dan bezalaxe. Horregatik, ni Lizardiren poemiarekin geraketan naun *Oi, lur, oi, lur…*♬ poz haundixagua emuten xostan!
A: Bai, baiña ez egidak esan azkenengo bersua tristia eztanik: '*bañan … ezin: beeko behar goriak narama…agur, soro, sagar, mendiak*' . Orainguan be hor geratu dok poetia bere gurarixa bete ezindda!
J: Bai, arrazoia dakon, Benitoren errepertorixuan melankonia, eziña, tristuria, eta holako emoziño asko agerketan dittun, baiña horrek etxon esan gura ederrak eztiranik!

(Irakurri bedi testua aittaketan diran Benito Lerxtundiren kantu bixak entzunaz)

>> JAKINGARRIXA

Herriko zein auzotan dagoz '*ur*' izenagaz osotutako baserri- eta leku-izen honeik?

1. Urgaiñena 2. Urbixa
3. Urbieta 4. Urgorriko arrua
5. Ugarkalde 6. Ugarte
7. Urzabaleta 8. Ubaozabal
9. Urgozo 10. Urzulo

a. Larraña b. Zubillaga
c. Berezao d. Urrexola
e. Araotz f. Olabarrieta
g. Goribar h. Partzuergo Nagusixa

Erantzunak: 1e, 2h, 3g, 4b, 5a, 6f, 7f, 8c, 9d eta 10c

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA

Teatro-emunaldixak Oñatin 1950eko hamarkadan

Aurretik zertxobait hasitta baegoen be, **II. Errepublikan** (1931-1936) euki eben **antzerkixak garairik aberatsena** Oñatin. Orduko talde politiko inportantienak sarrittan antolaketan zittuain euren lokaletan teatro-emunaldixak: **karlistak *zirkuluan*, EAJko abertzaliak *batzokixan*** eta **errepublikanuak *zentruan***. Karlistak erderaz eta euskeraz; abertzaliak euskeraz; eta errepublikanuak erderaz. Gerriak, jakiña danez, beste esparru gehixenak letxe, teatruaren jardueria be zihero atxilipurdikatu eben. Batzokixa eta zentro errepublikanua erabat debekau eta itzi zittuain, eta zirkuluak, jarraittu arren, ez otsan, antzerkixari dagokixonian, gerra aurreko martxiari eutsi.

Gerrate ondorengo lehenengo urtietan, noizian behin, ***komerixak*** edo antzerakuak egitten ziran herriko eskoletan, neskatillen kolejixotan gehitxuago mutikuenetakuan baiño. Baiña 1950eko hamarraldixaren bigarren erdialdixan aittaketako moduko aldaketia gertatu zan arlo honetan. Izan be, **gazte animoso batzuek** teatro zaillagua eta serixuagua eskintteko saixuari ganoraz heldu otsain. Zera esan bihar da: kultura-ahalegin haren animia eta zuzendarixa **Joxe Mari Arzuaga** izan zala, gerora be eragille oso garrantzitsua Oñatiko musika-munduan. Haren ardurapeian antzeztu ziran hemen hiru teatro-lan desbardin: **Joaquín Calvo Sotelo**ren ***La muralla*** (1956), **Josep Maria de Sagarra**ren ***La herida luminosa*** (1957) eta **Pedro Calderón de la Barca**ren ***La cena del rey Baltasar*** (1958). Lehenengo bixak modernuak sasue haretarako, eta hirugarrena XVII. gizaldiko auto sakramental klasikua.

Modernuok **abadetxeko areto zaharrian** errepresentau ziran, **Garoa** ziniaren aurrekuan; klasikua **unibersidadeko klaustro dotorian**, Korpus bezpera batian. Ni gaztetxua nintzan artian, baiña ondo goguan dakot zelako aurrerapausua izan zan guretzat herrittarrak modututako mailla horretako teatro-emunaldixak ikusi ahal izatia. Gaurko fotografixan J. Calvo Soteloren ***La muralla*** izeneko lanian parte hartu euen artistak dakartzuegu. Ezkerretik eskumara:

Goiko illaran zutik: **Pedro Mari Galdos; Milagritos Igartua; Teofilo Etxegoien;** eta **Jesus Mari Romano.**

Beheko illaran jarritta: **Axun Arzuaga; Joxe Mari Arzuaga; Agustin Uribarri (Zarketa)**; eta **Antoni Beitia**.

Teatro-lan horren gaixa ausart samarra zan frankismo-denpora estu haretan. Gerra zibileko irabazle batek gudatean **era oker eta anker baten bidez eskuratutako ondasunak jatorrizko jabiaren ondorenguari bueltaittia pentsaitten dau**, heriotzako ordua hurrian somaitten dauenian, damuaren harraren eragiñez-edo. Baiña, orduan, **bere familixakuak izango dittu etsairik nagusixenak**, eztagozaleko prest euren bizimodu eroso eta lasaixari uko egitteko. Aitta eta seme-alaben artian ***hormatzarharresi*** ikaragarrixa jasoten da, eta protagonista bere asmua burutu eziñik hilgo da, dramatismoz josittako eszena batian. Aittatu diran hiru obra honeik gaztelaniaz plazaratu ziran, harrera onarekin publikuaren aldetik. Gerra osteko euskerazko antzerkixaren lehenengo ahalegiñak 1960ko hamarraldixan ezagutu gittuan Oñatin. Hurrengoren batian aztertuko dittugu.

Argazkixa Juanita Uribetxeberriaren bittartez aillegau xaku. Informaziñua Juanitak ez ezik, Axun Arzuagak eta Teofilo Etxegoienek samurtu doskue. Milla esker danoiri!

Jerardo Elortza

GURE **ETORKIZUNA ZAINTZEN** JARRAITZEN DUGU

ESKERRIK ASKO!!

bezero eta herritar guztiei

#AupaAloña

COINBROKER OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9
20560 Oñati / Gipuzkoa

943 089006
www.coinbroker.eus
oinati@coinbroker.eus